

**1933-1936KO EZTABAIDA:
ALTUBE VS. GARAI, NABARIZTARA ETA MIBISUS
FISHMANEN *RLS*-ren ARGITAN**

1.- Sarrera

2.- Altube: La Vida del Euskera

- 2.1.- Sarrera
- 2.2.- *Hizkuntza ahoz aho transmititzen da.*
- 2.3.- *Herriaren lexikoa errespetatu dezagun.*
- 2.4.- *Azken 40 urteotan herriarentzat ez den literaturak euskarari ekarri dizkion kalteak.*
- 2.5.- *Hizkuntzen maileguak eta linguisten iritzia.*
- 2.6.- *Hizkuntzaren aurrerapena ezin da egin bizirik dauden hizkeraren formen aurka.*
- 2.7.- *Euskaldun berriak ez dira berriztapen horien kalteez ohartzen.*
- 2.8.- *Berriztapen linguistikoak egitean ez dadila gustu pertsonalengatik izan.*
- 2.9.- *Hizkuntza teknikoaren eta literarioaren arteko aldeak. Literarioa lantzeko, herriaren hizkuntza menperatu behar da.*
- 2.10.- *Hizkuntza literarioa herriko hizkuntzatik bereizteak, bion arteko dibortzioak, lehenengoaren jaiotza artifiziala eta bigarrenaren heriotza ekar dezake.*
- 2.11.- *Garbizaletasunaren gorespenak herriaren euskararen gutxiespena dakar eta horren ondorioz, ahozko euskara hiltzeko arriskua.*
- 2.12.- *Hizkuntzaren arima ez da hiztegia gramatika baino.*
- 2.13.- *Zer dela eta jokatzeko dugu eskaldunok printzipio linguistiko unibertsalen aurka?*
- 2.14.- *Euskalzaleen akatsa: hizkuntza hilak eredu.*
- 2.15.- *Nola berreskura daiteke galtzen ari den hizkuntza? Euskalzaleak eta abertzaleak. Euskara literarioaren batasuna.*
- 2.16.- *Linguistikaren ekarpenak.*

3.- Nabaiztaaa

4.- Luis de Garai

5.- Mibibus

- 5.1. *Hizkuntza ahoz aho transmititzen da.*
- 5.2.- *Herriko lexikoa errespetatu dezagun.*
- 5.3.- *Herriarentzako ez den literatura egitearen kalteak.*
- 5.4.- *Altuberen VI-VII-VIII puntuei buruz.*

6.- Altube: "Más sobre la Vida del Euskera"

LEHENENGO ATALA: Euskaralopia eta hizkuntzalaritza

I.- *Zientzia linguistikoaren prestigioa.*

II.- *Linguistika soilik?*

III.- *Linguistikak ez du balio euskararen kasuan?*

IV.- Euskaralogia Linguistikaren barruan.

BIGARREN ATALA: Neologismoak eta jatorri exotikodun hitzak.

I.- Jatorri arrotzeko hitzen zilegitasuna.

II.-Neologismoak sortzeko hizkuntzen gaitasuna.

III.- Hizkuntzen arteko hitzen mailegutza.

IV.-Noiz eta nola onartu behar dira hitz arrotzak?

V.- Neologismo morfologikoak ez dira bideragarriak.

HIRUGARREN ATALA: Garairen irakurketa okerrak.

LAUGARREN ATALA: Euskararen atzerakada eta aurrekadak. Euskal Berpizkundera.

I.- Azken 40 urteotako euskararen galerak.

II.- Muturreko garbizaletasunak ez du euskara “hiltzen” baina lanketa literarioaren eraginkortasuna deuseztu egiten du.

III.- Bidegabekeria da euskal berpizkunderaren iraintzaileak garela esatea.

IV.- Abertzaletasuna oso garrantzitsua da euskara biziko bada, baina hil eta gero, nekez berpiztuko du.

V.- Eskolaren eta familiaren eragina hizkuntzen biziraupenean.

BOSGARREN ATALA: Hiztegiaren “aberastasuna” eta “garbitasuna”. Hitzen inportazio “normala” eta “anormala”. Lexiko “arrunta” eta “teknikoa”.

I.- Erabiltzen diren hitz guztiak onartuta ere, oraindik hiztegian hutsune handiak geratzen dira. Egoera honetan gabezia honi aurre egin beharko, eta ez, hitzak baztertuz.

II.- Inportazio lexikografiko “normalak” eta “anormalak”. “Anormalak” dira garbitu beharrekoak.

III.- Zer da hiztegi ulertterraza?

IV.- Ideia berriak adierazteko neologismoak edo arkaismoak erabiltzea hiztegia aberastea da; herriaren hizkeran errotuta dauden hitzak ordeztzeko erabiltzea hizkuntzari bizitasuna eta adierazkortasuna murriztea da.

SEIGARREN ATALA: Euskal literatura eta herri euskalduna – “Euskalzale”, “Kirikiño”...

I.- Ez da nahikoa euskal idazle gutxi batzuek herriaren euskara erabiltzea uxatutako irakurleak erakartzeko.

II.- EUSKALZALE aldizkariak ez zuen “euskara motrolloa” maite, baina maite izan bazuen ere, egoera hartan zaila zuen arrakasta lortzea.

III.- Zergatik ez dute arrakastarik Kirikiñok euskara errazean idatzitako liburuek?

IV.- KIRIKIÑOren zentzu praktikoak bere zaletasun garbizalea gailendu zuen. Ez da “motrolla” KIRIKIÑOk erabiltzen zuen euskara.

ZAZPIGARREN ATALA: Neologismoen eta herriaren hitzen zabalkundea, adierazkortasuna eta beste alderdi batzuk.

I.- Neologismoen zabalkunde erlatiboa.

II.- Hitzen ezagutza intelektiboa eta instintiboa edo barneko ezagutzaren arteko aldea.

III.- Erderazko hitzetatik eratorririko hitzak neologismoen bidez itzultzeko zailtasuna.

IV.- Inportatutako hitzak sinonimo diren neologismo zabalduekin batera erabil daitezke.

V.- Arazo linguistikoetan ez dute gustu pertsonalek agindu behar.

VI.- Ikastunek laster ikasten dituzte neologismoak baina herri xeheak ez. Hitzegi “popularrak”, “literarioak” eta “zientifikoak” bereiztu behar dira.

VII.-“Errotutako” lexikoa eta “ez errotutako” aren arteko aldea. Herriak, normalean, zuzen hitz egiten du.

VIII.- Klasiko espainolen eta lantindarren neologismoak.

IX.- Hizkuntzalariak eta hizkuntzaren forma arraroak.

ZORTZIGARREN ATALA: “Abertzaletasuna” eta “euskararen garbitasuna”.

I.- “Abertzaletasuna”-k garbizaletasunaren gehiegikeriak ebitatzea aholkatzen du.

II.- Euskaldun berriak eta euskal berrikuntzak.

III.- “Renacimiento euskérico”-k (euskal berpizkundeak) bi arlo ezberdin landu behar ditu: tutoretza (tutelar) izenekoa eta zientifikoak.

IV.-Arana-Goiriren irakaspen euskeralogikoak eta horien jarraitzaileak.

BEDERATZIGARREN ATALA: “Euskera-zaà” eta “euskera- beà” – Zentzuzko garbizaletasuna – Abertzaletasuna – Gure erdal idaztiak – Antzinako eta oraingo euskal idazleak.

I.- Hitz “arkaikoak” eta “neologikoak”, erderazko “popularrak” eta “ez popularrak”.

II.- “Zentzuzko” eta “muturreko” garbizaletasuna

III.- Gure euskal eta erdal idazkiak.

IV.- “Abertzaletasuna” eta “Aberriaren askatasuna” euskara salbatzeko.

V.- Antzinako euskal-idazleak eta idazle modernoak.

7.- Fishmanen RLS (Reversing Language Shift) edo HINBE (Hizkuntza INdarberitzea)

1.- SARRERA

Euskararen ahultze-prozesua eta horri aurre egiteko neurrien gaineko azterketa ez da gaur egunekoa, aspaldiko kezka da, lan honetan ikusiko dugunez. Lan honek helburu bikoitza du: 1933-1936 artean euskalzaleek euskararen gainean izan zuten eztabaidaren berri ematea, alde batetik eta bestetik, gaur eguneko soziolinguista ospetsu baten teoriekin alderatzea, Fishmanen RLS (Reversing Language Shift) teoriarekin, alegia.

Aipatutako eztabaida hori lau euskalazalaren artekoa izan zen: Altube, Luis de Garai, Nabaizta eta Mibisus.

Altube: La Vida del Euskera

1933an Altubek "Sociedad de Estudios Vascos" elkarteak antolatutako udako ikastaroetan irakurri zuen "La Vida del Euskera" izeneko hitzaldiak piztu zuen eztabaida.

Altubek hitzaldi hartan garai hartako euskalzaleen garbizaletasuna gogor kritikatu zuen, beraren ustez garbizaletasunak euskararen aurrerapena eragotzi egiten baitzuen. Euskarari aurrerakada bat emateko kanpaina garbizaleak alde batera utzi eta herriaren hizkeratik aldendu gabe herriarentzako literatura egiteko dei egin zien orduko euskal idazleei.

Altubek uste du hizkuntza bat berreskuratzeko ez direla nahikoa, lagungarri izan daitezkeen arren, batzuek uste duten moduan, gramatika eta hiztegia izatea, edo aberriak askatasuna lortzea.

Abertzaletasunak ezin du miraririk egin, Altuberaren ustetan. Funtzeskoa da euskaldunengan euskalzaletasuna eta euskara ikasteko gogoia bultzatzeko baina horrekin bakarrik ez da nahikoa.

Orduko euskal idazleei hizkuntzalaritzaren ezagutzarik ez izatea leporatzen die, hizkuntzen zientzia beharrezkoa dela gurearen moduan arriskuan dagoen hizkuntzari laguntza emateko. Laguntza ematean ezin dela subjektiboa izan uste du Altubek, ezin zaiola bihotzak esaten duenari eutsi, objektiboa izan behar dela, arrazoiak agintzen duena egin behar dela.

Hizkuntzalari ospetsuen ideiekin bat eginez, Altubek ahozko euskarari eman behar zaion lenentasuna azpimarratu zuen, familiaren bidezko transmisioaren garrantziaz ohartazi nahi izan zituen euskal idazleak. Hots, bizirik dagoen hizkuntzari heldu behar zaiola, euskaldun txokoak, euskararen babesgune horiek, zaindu eta gorde egin behar direla, hor dagoela eta, hizkuntzaren biziraupenaren giltza.

Altubek hitzaldi hori eman eta urtebetera bi euskalzaleren kontrako iritziak argitaratu ziren "Euzkerea" aldizkarian: Nabaiztaàa eta Luis de Garai.

Nabaiztaàa

Nabaiztaàak hizkuntza jasaten ari zen atzerakada ez zela garbizaleen errua, arazoa aspaldikoa zela esanez, garbizaletasunak euskarari ekarri dizkion onurez aritu zen bere artikuluan.

Euskara galtzearen errudun nagusiak euskaldunak direla adierazi zuen, ez baitute euskararekiko inolako ardurarik.

Argi zuen Nabaiztaàak herriak hizkuntza narrasa zerabilela eta hizkuntza garbitu egin behar zela, erdal hitzek zekarten-eta, euskararen galbidea. Ados dago, dena den, garbiketak ez duela bat-batekoa izan behar, apurka-apurka egiten den prozesua izan behar dela onartu zuen.

Luis de Garai

Luis de Garaik uste zuen euskararen atzerakada geldiarazteko ezinbestekoa dela euskara garbitzea, euskara isolatu egin behar da beste hizkuntzetatik eta horretarako erdarazko hitz guztiak baztertu eta neologismoak edo arkaismoak zabaldu behar dira haien orde. Isolatzeak lortuko du euskara libre izatea eta beraz, salbatzea.

Euskarak duen arazorik handiena euskaldunak berak dira. Euskaldunek ez dute hizkuntzaren konzientziarik eta erderaz hitz egin nahiago dute. Nola sustatu euskararen erabilera? Abertzaletasunean dago giltza. Abertzaletasunak piztu du euskaldunengan euskal konzientzia, hori gabe ezin da hizkuntza salbatu.

Euskara beharrezko egin behar da gure gizartean, udaletxe, bulego eta lanpostu ofizialetan jarduteko euskara derrigorrezko baldintza jarritz. Horrela jendea kezkatu egingo da, euskara ikasi eta erabili egingo du.

Euskararen erabileraren beherakada geldiarazten bada, euskaldun abertzaleen lanari esker izango da.

Mibisus

1935ean Mibisusek ere Altuberen artikuluan adierazitako zenbait ideien kontrako iritzia agertu zuen.

Altubek familiari euskararen biziraupenean aitortu zion garrantzia ez du Mibisusek halakotzat hartzen, familia ez baita euskara ikasteko bide bakarra eta are gutxiago zuzenena.

Idatzizko hizkuntzak ahozkoa gainditu egin behar du eta horretarako ezinbestekoa du hitz berriak sortzea bai erderazkoen ordean, bai hitzen arteko zehaztasun semantikoa egin behar denetan.

Euskaraz irakurtzen duen irakurle gutxi izatearen errua ez zaio literatura garbizaleari egotzi behar. Beste faktore batzuk dira euskaldunaren erderarako joera horretan, besteak beste, modernitateak ekarri duen herrien arteko interkomunikazioa.

Abertzaletasuna euskara salbatzeko nahikoa ez bada ere, abertzaletasunetik euskararen aldeko lana sustatu beharko litzateke, elkarrekin, lan-taldeak sortuz Euskararen erabilera sustatzeko, erderaz hitz eginarazteko erabili ziren metodoak berreskuratu beharko liratekeela uste du: isunak eta zigorrak jarriz erderaz hitz egiteagatik.

Altube: "Más sobre la Vida del Euskera"

1936an Altubek "Más sobre la Vida del Euskera" idatzi zuen aurkako iritzia zutenei erantzuteko. Altuberen asmoa hirurei erantzutea izan bazen ere, Luis de Garairi emandako erantzuna baino ez da ageri. Pentsatzekoa da gerra zibilaren garaia zenez, ezin izango zituela argitaratu beste biei egindako erantzunak.

Altubek berriro azpimarratzen du literatura garbizaleak ez diola euskarari inolako mesederik egiten eta euskal idazleak hizkuntzalaritzaren teoriak irakurtzera animatzen ditu, hor egon baitaiteke euskarari laguntzeko modu egokia.

Ez abertzaletasunak, ez gramatikak, ez hiztegiak, ez askatasunak, ez literaturak euskara errazean, ez hizkuntzaren garbitasunak, isolamenduak berreskura dezakete hizkuntza hila. Eutsi diezaiozun dugunari, bizirik dugun euskarari eusten ahalegina egin beharko genuke, geratzen diren txoko euskaldunak babestu eta horien euskara zabaldu.

Fishman: "Reversing Language Shift" edo euskaraz HINBE (Hizkuntza INdarberritzea).

Fishmanen teoria irakurrita esan daiteke euskaldunoi begiak zabalarazten dizkigula, sentimentuak alde batera utzita, euskararen arazoaren diagnostikoa egiteko tresna objektiboa eskaintzen baitigu.

Ikusiko dugunez, Altube ez dago Fishmanen teoriatik batera urruti, ondo asko ezagutzen zituen-eta hizkuntzalari ospetsuen ikerketak eta emaitzak. Beste kuku batek joko zigukeen eta joko liguke gaur ere, gure bihotzari baino honelako ikerketei kasu egin(go) bagenie.

Zaila dela Fishmanen hainbat teoria praktikan jartzea, noski. Baina diagnostikoa egiteko baliabide egokia izan daitekeela ezin ukatu.

Fishmanek ahozko hizkuntzari ematen dio lehentasuna, ez gramatika edo hiztegiari (gogoratu gure euskalzale garbizaleen teoria). Fishmanen ustez, funtsezkoa da ahoz ahoko transmisioa egotea hizkuntzak iraun dezan. Ildo horretan, familia eta auzoko gizartearen papera ezinbestekoa da euskara gordetzeko. Euskarak arnaguneak behar ditu, Altubek esaten zituen “núcleos familiares” babestu behar ditugu.

Hasieran esan dugu Fishmanek begiak zabalarazten dizkigula eta esan behar da ikusten dugun errealitatea ez dela gustukoa; izan ere, oso gogorra iruditu arren, egia galantaren aurrean jartzen gaitu Fishmanek: ahaztu – diosku- Euskal Herri euskaldun elebakarra! Jakina, bizi garen mundu moderno honetan ezin dezakegu espero –eta ez zaigu komeni, gainera- elebakarrean aritzea. Lortu behar duguna –dio Fishmanek- da diglosiadun elebitasun egonkorra, hots, erdera eta euskararen arteko funtzioen konpartimentazio egonkorra. Beste modu batera esanda, euskaldunok euskaldunekin euskaraz aritu behar dugu eta erdaldunekin zergatik ez, erderaz? Hori bai, zaila izanagatik, erdaldunak gure euskal mundura erakartzen ere saiatu behar dugu.

2.- ALTUBE: LA VIDA DEL EUSKERA

Divulgación de los principios de la lingüística general aplicables a su defensa.

2.1.- Sarrera

"La Vida del Euskera" Altubek 1933an "Sociedad de Estudios Vascos" elkarteak antolatutako udako ikastaroetan irakurri zuen hitzaldia dugu. Hitzaldia hau Kepa izeneko batek idatzitako artikulu batek inspiratu zuen. Keparen hitz aipagarrienak ekarri ditugu orri hauetara: *"Cada día se escribe más y mejor, y es indudable que por el euskera escrito se ha purificado y mejorado el euskera hablado, pero el uso de éste se va restringiendo tanto, que de seguir así, el euskera llegará a catalogarse en breve plazo entre las lenguas muertas. Aunque el asunto es muy grave y lamentable, apenas si le damos importancia, ni ponemos medios eficaces para evitarlo (...) Bien está que se establezcan Escuelas Vascas... Que tengamos publicaciones de cultura euzkérica... Que se fomenten los cantos euzkéricos... Todo eso es muy patriótico y está muy bien, pero no es suficiente.(...) ¿Seremos tan malos patriotas que dejemos morir el euskera? ¿No habrá una entidad patriótica que organice y lleve a la práctica un plan, con la decisión necesaria, para que el pueblo euzkeldun no deje de serlo?"*

Beste idazle batek ere Arnoprek antzeko adierazpenak egin zituen "Argian" (1932) bizkaieraren ahozko erabileraren atzerakadaren gainean: *"Egunetik egunera Jaungoikoari eskeàak euskerazko irakurgayak ugaritzen dijuazkigu ta euskera beàiz, beiñere baño gutxiago euzko eàian egiten da; uri, mendi ta baseàietatik ere taupada aundiaz igezka dijoa.- Orain urte gutxi euskera beste izkuntzarik erabiltzen etzan tokietan, garai onetan baztertua aurkitzen da".*

Zerk eragiten du euskara baztertzea? Arrazoiak ugariak dira eta gehienak aspalditik datozen arrazoi politikoak eta sozialak dira. Bada beste arrazoi garrantzitsu bat ere, gaurko belaunaldiari zor zaiona, azken 40 urteotan euskeraren biziraupenaren alde borrokatu duten euskaldunei.

Hitzaldi honen helburua mugimendu euskalzaleak azken urteotan euskararen ezagutza teorikoa eta praktikoa zabaltzean egin dituen hutsegite eta hankasartzeak adieraztea izango da.

2.2.- Hizkuntza ahoz aho transmititzen da.

Batzuek uste dute hizkuntzaren ezaugarriak (lexikoa, morfologia, sintaxia, prosodia...) bildu eta antolatuta izatea nahikoa dela hizkuntzak bizirauteko eta uste baikor horrek itsututa ez dira arduratzen hizkuntza horren eguneroko aurrerapenez edo atzerapenez.

Altubek jarraitzen du "olvidan que la lucha de vida o muerte de los idiomas se resuelve en última instancia ahí, al ras de tierra, en los pequeños combates diarios entablados en el seno de las familias y entre las gentes del pueblo, que se inclinan, muchas veces inadvertidamente a favor del uso de uno u otro idioma".

Hizkuntza belaunez belaun ahoz aho transmititzen da. Garrantzitsuena familiako hizkuntza da, eskolak, liburuak, prentsak, norberaren lanak lagun dezakete hizkuntza hori osatzen baina behinena familian ikasten dena da.

Kontuz, halere, familiak nola erabiltzen duen euskara. Badira familia batzuk euskara ume txikiekin eta neska-morroiekin hitz egiteko soilik erabiltzen dutenak. Akats larria da hori, umeari euskaraz egin arren, gurasoen arteko hizkuntza erdera bada, ume horrek jasotzen duen mezua zera da, alde batetik, nagusien arteko eta are okerrago, gai garrantzitsuez hitz egiteko erdera erabili behar dela eta beste aldetik, etxean den-dena euskaraz egiten ez bada, ez zaio ume horri hizkuntza bere osotasunean transmititzen. Honelako egoerek transmisioa ahuldu eta eten egiten dute.

Aditu batek zioen ez garela konturatzen amek egunero seme-alabei hizkuntza irakasten egiten duten lanaz, etengabeko zuzenketak eta azalpenak emanaz. A. Meillet linguista ospetsuak ere hizkuntzak ikastean haurtzaro garaia oso garrantzitsua dela adierazi zuen, umeak duen gaitasun harrigarria azpimarratuz: *"La potencia de asimilación del niño joven es cosa maravillosa; en los tres primeros años de su vida, el niño adquiere mucho más que en todos los que siguen. La perfección de las adquisiciones hasta entonces sobrepasa a lo que puede realizarse más tarde".*

Familia da, beraz, hizkuntza ondo ikasteko bitarteko eraginkorra eta erabakitzailea, gero hizkuntza hori etxetik kanpoko eguneroko erabileran osatuko da. Bitarteko natural horretatik kanpo geratzen dira terminologia tekniko edo zientifikoa, betiere norberaren aukerakoa. Dena den, artifizialki sortzen diren termino horiek hizkuntzaren arima osatzen duen material konplexu eta baliagarriaren ondoan (fonetika, fonologia, morfologia, sintaxia, esamoldeen mundua, herriaren lexikoa...) zati txikia da; izan ere elementu berri horiek gabe ere hizkuntzak iraun izan du.

"No deberá olvidarse que muchos idiomas han vivido y envejecido sin ser escritos, mientras que ninguno ha podido vivir sin ser hablado". (A. Dauzat, in "Philosophie du Langage")

Ahozko hizkuntza hizkuntza idatzia baino aurreragokoa da, azken hau bestearen jantzia baino ez da. Ahozko hizkuntza, beraz, oinarrizkoa da eta beharrezkoa. Idatziak hobetu eta aberastu (batez ere hiztegiak) egiten ditu hizkuntzak baina ahazko hizkuntzaren egiturak ahaztu gabe. Hizkuntza idatziak ahazko hizkuntzaren lexikoa gaintzen saiatu behar du baina ahazko hizkuntzak berezko dituen formak beste artifizial batzuegatik ordeztu gabe, ez ditu herriaren forma linguistikoak neologismoengatik ordeztu behar, alegia eta

egin behar duena da, ordea, herriaren kulturak ezagutzen ez dituen kontzeptuak izendatzeko hitzak sortu eta zabaldu.

Gaurko idazleek ez dute aurrekoa kontuan izan eta herriak berezko dituen formak ere, inongo eskubiderik ez dutela, aldatu egin dituzte.

2.3.- Herriaren lexikoa errespetatu dezagun

Euskal literaturak, erderazko hiztegia erabiltzean hiru bide har ditzake:

a) Euskal ordainik ez dagoenean inolako mugarik gabe erderazko hitzak onartzea. *"Nor da Jaungoikoa? - Da gauza bat esan da pentsatu al litekeen baiño admirableagoa, Jaun bat infinitamente ona, poderosoa, sabioa, justua, printzipiua ta fiña gauza guztiena"*. (Juan Irazusta). Esan behar da, zorionez, idazle gutxi jarraitu dutela bide hau. Idazle horien lanaren ondorioz kaltegarria idazle garbizaleengan sortarazi duten aurkako erreakzio itsua eta neurrigabekoa izan da.

b) Erderazko hitz guztiak baztertzea eta herriak ezagutzen ez dituen beste hitz garbiago batzuk onartzea. Hitz arrotzak hizkuntzari aberastasuna ematen dioten elementu positibotzat jo behar dira. Ez dira, beraz, baztertu behar eta herriak onartuta baditu literaturak ere onartu beharra du.

c) Muturreko aukera bi horiez gain, bada zentzuzko aukera bakarra. Herriak eguneroko hiztegian erabiltzen dituen hitz arrotzak onartu behar dira batez ere, euskara ondoen hitz egiten den herri edo eskualdetakoa eredutzat hartuz.

Hirugarren aukera hau gogoko ez duten idazleek euskal literatura pobretu ez dadin eta herriarengandik urrun ez dadin linguista batzuen lanak irakurri beharko lituzkete. Beste hizkuntza batzuetan (ingelesa, alemana) neologismoak sortzeko arazorik ez duten arren, forma arkaikoak dituzten arren, ez diete berba arrotzei muzin egiten. Arrazoi dute konparazio onik ez dagoela diotenean, izan ere, hizkuntza hauek abantailak dituzte, bitarteko guztiak dituzte (eskolak, unibertsitateak, prentsa, antzerkia...) hizkuntza horiek erabiltzeko eta hobetzeko. Gurea, ordea, inolako babesik gabe bizi da eta halere, hizkuntza indartsuenak eta babestuenak nekez jasan dezakeen hustuketa egin nahi zaio.

2.4.- Azken 40 urteotan herriarentzat ez den literaturak euskarari ekarri dizkion kalteak.

Linguistikari eta ondoko herrietan gertatzen denari gehiago begiratuko bagenio konturatuko ginagoko hizkuntza, beste izaki bizien antzera, hobetu, garatu edo ahuldu eta hil egiten den produktu soziala dela.

Gure hizkuntza honi gaitza sendatzeko euskal idazleek medikuntzara (linguistika) jo beharrean, "*remedios guiándonos por sentimentalismos y apreciaciones empíricas y caprichosas*" erabiltzen dituzte.

Idazleen hutsegite hau oso arriskutsua da eta ondorio kaltegarriak izango ditu hizkuntzan, herriaren hizkuntza gailentzen duen literatura garbizaleak azkenean idazleen eta herriaren arteko dibortzioa ekarriko baitu.

Orain dela 40 urte, Bizkaian eta Gipuzkoan "renacimiento euskerista" izeneko mugimendu ospetsua sortu zenean, euskaraz Bizkaia osoan (Enkarterriak eta Bilbao, izan ezik) eta Gipuzkoa osoan hitz egiten zen, baita Donostian ere. Inork gutxik, familia on batzuk kenduta ezagutzen zuen erdera, erderazko publikazioak medikuak, apaizen batek eta beste bik irakurtzen zituzten. Garai hartan eta bereziki, espainol eta amerikarren arteko gerra garaian euskaldun asko hasi ziren egunkariak irakurtzen. Irakurzaletasun hura aprobetxatu bazen eta euskarazko publikazioekin hasi, euskal irakurle asko irabaz zitzakeen eta orduan ere lexikoa zaindu egin beharko zen, ez garbizalea ez "euskara mordoltoa" erabiliz, euskara erraz, atsegin, entretenigarri eta adierazkorra erabiliz, herriak erabiltzen zituen mailegu hitzak arbuatu gabe, beste hizkuntzetan gertatzen den bezala. Ortografia ere erderatikotik gehiegi aldendu gabe, lehen hezkuntzan hori ikasten baitzuten euskaldunek.

Aurrekoak badu esperientzia Iparraldean, han euskaldunak ez du izan arazorik euskal literaturara ohitzeko. Bizkaian ez da horrelakorik jaso, euskarak mailegatutako eta herriak berezko dituen erdarazko formak eta hitzak erabat baztertu dituzte eta baikor aritu dira "*eta euron antzeko berba guztiak oraindixek pilotuten asiko gara; ta iru urte baàu, lenago ezpada, euron ordezeko berba garvi edeàak zabaldu daizanean, su emongo iako erderakada-pilo-oàeri*".

Zientziaren aurkako zentzugabeko mugimendu hau, gainera, gure hizkuntzaren garairik txarrenean sortu da, azken gerla karlistaren ondoren lehen mailako eskolak zuzentzen dituzten maisu-maistren bidez herriaren erdalduntzea hasi denean.

Eraso horri aurre egiteko beharrezkoa zen lehen aipatutako herriarentzako literatura erraz eta atsegina. Baina Euskal Herrian hizkuntza bat baino gehiagoren gramatika ezagutu arren, linguistikan aditu gutxi daude eta hor dago gaitza.

Eskerrak baden salbuespen bat gure idazleen artean: Evaristo de Bustinza (Kirikiño), honek maisutasun ikaragarriaz erabili zuen herriaren lexikoa, ez edonola, ez edonon, betiere, herriak hala erabiltzen dituenean "*pilosopokeri, demoniñue, tunante, pintau, soldau, jeneral, txaleko, zapata..*" eta abar oso gogoko izan zituzten, antza, irakurle askok; izan ere inork baino arrakasta handiagoa lortu zuen.

Egia esan, errazagoa da eta "luzituago" geratzen da hiztegi garbizalea hartu eta hitz ponposoak erabiltzea, herriaren grazia eta esamoldeak behar bezala paperera ekartzea baino. Lexiko garbi hori ez da helburua, herriaren

hizkuntza transmititzean idazleek duten gabezia eta trebetasun ezari aurre egiteko bitartekoa baino.

Erderaren zabalkundea ez du geldiaraziko hizkuntzaren ikasketa teorikoa egiten duen jendeak (eta poztekoa da ikasteko ahalegin hori), euskara horrela ikasten duenak bai ikasiko du idazten eta irakurtzen baina ez du familia bidez jaso duenaren bezain naturalki egitea lortuko. Latina ere askok teorikoki eta artifizialki ezagutzen du baina hilda dago. Hori gertatuko zaio euskarari ere, teoria mailan ezagutuko dute askok eta literaturan praktikatu, hitz egin ere hitz egingo dute batzuek euskaldun berriek dituzten zailtasunekin baina herriaren bizitzatik desagertzen denean hil egingo da.

Hitz gogorrak, ezta? Premiazkoa da euskalzaile guztiek euskara hiltzearen arriskuaz jabetzea eta hori ekiditeko neurriez hausnartzea eta beharrezko ikustea oso garrantzitsua dela euskara bizirik dagoen herrietan edo familia multzoetan euskara lantzea eta gordetzea. Nola lortu hori? Literatura erraz, erakargarri eta atsegina eskainiz, alde batetik, baserritarrak erabiltzen duen lexiko joria, aberatsa erabiliz eta, beste aldetik, euskara "garbia" eta herriak erabiltzen dituen beste hitz batzuk ordeztzen dituzten neologismoak eta arkaismoak erabat baztertuz. Ortografia, gaztelania lehen mailako hezkuntzako hizkuntza den artean, gaztelaniaren ahalik eta antzekoen egitea, herriari erraz egin dakion; Euskaltzaindiak proposatzen duena zail egiten zaio, eskolan gaztelaniaren ortografia irakurtzera ohituta dago-eta euskalduna.

Erronka handia dugu, lehiatzaile arras gogorra dugu. Euskaldunaren alfabetatzeko lehenengo hizkuntza erdera izatea eta erderaz idazten den ugaritasuna (gustu guztietako publikazioak) abantaila handiak dira. Euskaldun peto-petoengan ikusten da erderaren eragin hori, ez du ia erderaz hitz egiten jakingo, ozta-ozta botako ditu hitzak bata bestearen atzean, maskulinoa eta femeninoa bereiztu gabe baina erderaz irakurtzen duena euskaraz ("*ori euskera baàiyori guk eztoqu entenietan da..*" baino askoz errazago ulertuko du.

Abertzaletasunak ere berez ez du miraririk egingo, euskarak gaur dituen beharriari heldu behar zaie eta zentzuzko erantzuna eman. Ezin da ukatu abertzaletasunak euskara ikertzea eta ikastea bultzatu duela baina askotan esaerak dioena gertatzen zaigu "euskara bihotzean, erdara ezpainean".

2.5.- Hizkuntzen maileguak eta linguisten iritzia

Linguistei hizkuntzek beste hizkuntza batzuetatik hitzak mailegatzea oso prozesu naturala iruditzen zaie. Ikus dezagun:

1.- A. Meilletek hizkuntzen mailegatzearen hainbat adibide ematen digu "*Les Langues dans l'Europe Nouvelle*" liburuan:

Europar hitz egiten den hizkuntzetan komunean dituzten berbak asko dira: Familia, esaterako: *familia*, gaztelaniaz eta portugesez; *famille*, italieraz; *familie*, alemanieraz; *familia*, errusieraz...

Baltikoak eslaviar eta germaniar hizkuntzetatik hartu ditu hitzak. Finlandierak Batiketatik hartu ditu.

Gaur egun idazten den persiera modernoak, gramatika persiarra da baina hiztegia ia guztia arabiarra.

IX. mendean hartu zituen eslaviarrak latinetik eta germaniketatik zibilizazio hitzak.

Herrialdeen arteko harremanek eragiten dute hitzen joan-etorria. Errumanieraren kasuan, hizkuntza erromantzea izan arren erlijioa dela eta, Ekialdeko Elizari lotua egon denez, eslaviar eta grekoaren eraginak beste hizkuntza erromanikoetatik bereiztu du. Baita errusieraren kasua, bulgariarena, edo serbiarena ere. Eta polonieraren kasua kontrakoa izan da, katolizismoari lotuta egonik, latinaren eragina handiago izan da eslaviararena baino.

Asiako herri batzuk zibilizazioaren aurrerapenak Europako zibilizazioko teknizismoak hartzera bultzatu ditu.

2.- Abel Hovelacque "*La linguistique*" lanean honako mailegatze kasuak irakur ditzakegu, besteak beste:

Anamita hizkuntzak txineratik hartu ditu hitzak, baita japonierak ere, edo koreerak.

Danierak atzerriko berbak ditu latinetik, suediareratik, frantsesetik eta batez ere, alemanieratik hartuak.

Ingelesean ere frantses hitz asko sartu arren, ez du gramatikan eraginik.

3.- J. Veyndres, "*Le langage*".

Zibilizazioari buruzko hitzak dira gehienbat mailegatzen direnak, tresnak inportatu ahala sortzen dira berbak. Bretoiek, irlandarrek, anglo-sajoiek, alemanek, baltiarrek eta eslaviarrek latinetik hartutako hitzak zenbatzean ia berdinak direla ikus daiteke eta horien artean batzuk latinak grekotik hartuak dira.

4.- Ant. Gregoire "*Petit Traite de Linguistique*"

Gregoirek beste linguista batek zioena aipatzen du, Fenelonek "*Lettre sur les occupations de l'Academie*" liburuan esaten zuena: "*Oigo decir que los ingleses no rechazan ninguna de las palabras cuyo uso les resulta cómodo: las toman de todos los idiomas vecinos donde los hallan. Tales usurpaciones son permitidas. En este particular todo viene a ser común sin otro título que el del uso..*". Gregoirek gaineratzen du nazioen arteko harremanen ugaritasunak, garbizale edo puristen iritziak gorabehera, hitzen mailegatzea eta aldatzea ere ugaritu egingo duela.

5.- Américo Castro: "El elemento extraño en el lenguaje"

Komunitate linguistiko batek bi prozesu egiten ditu: a) hizkuntzaren elementuak garatu (hotsak, formak eta esanahiak, b) kanpoko elementu arrotzak hartzen hasten da. Orain arte azken prozesu hau, hizkuntza bezain zaharra dena, ez du inork zalantzan jarri.

Hitz egin edo idazten duenari berdin dio hitzak nazionalak diren ala ez, "*para el último labriego, lo mismo que para Cervantes o Goethe, la lengua es un medio para revelar el mundo interior, en forma que entiendan aquellos a quienes se dirigen*". Horixe da hizkuntza, komunikazio tresna. Idazleek zer esan dute helburu, ez zein hizkuntzatan, beraz, atzerriko berbak egoki ikusiz gero erabili egiten dituzte, Cervantesek italieratik hartutakoak, Goethek, frantsesetik. Elementu arrotz horiek zabaldu egiten dira arrunt egin arte eta heltzen da momentu bat zaila dela esatea tradizionala edo inportatua den hitza.

Ondorio gisa, esan dezakegu kanpaina garbitzaile horiek ez dutela zentzurik, hizkuntza garbirik ez dagoelako eta ez duelako zertan egon, hizkuntzaren nortasuna beste arlo batzuetan dago: morfologian, joskeran, fonetikan...

Nahikoa du euskarak gizarteak eta politikak jartzen dizkioten oztopoak gainditzen. Ez diezaiozun zaildu hizkuntzari bizitzeko eta irauteko aukera beharrezko ez den kanpaina garbizale bortitza eginez!

2.6.- Hizkuntzaren aurrerapena ezin da egin bizirik dauden herri hizkeraren formen aurka.

Zertan bereizten dira Linguistika eta Gramatika? Linguistikak hizkuntzaren lege biologikoak aztertzen dituen bitartean, Gramatikak (Linguistikaren adarra) hizkuntza (hilik edo bizirik) osatzen duten elementuak katalogatu eta sailkatzen ditu. Gramatiko hutsa forma arraro eta bitxiak liluratzen dute eta horiek hizkuntza arruntean txertatzen saiatuko da. Linguistikan aditua den gramatikoa ez da forma antzu horiekin hunkituko eta hizkuntzaren hil ala biziko egoera batean, bizirik dirauten hitzei lehentasuna emateko ahalegina aholkatuko du.

Ezin dugu hizkuntzaren bilakaera gure apetaz gidatu, hizkuntzari bere bide naturala jarraitzen utzi behar diogu.

Garbizaleek erderazko hitz guzti-guztiak besterik gabe desagertarazi nahi dituzte, euskaldunaren eguneroko tresna linguistiko arruntenak ere bai. A zer nahastea izango duen kalean eta etxean "*diru, erloju, pekatu*" entzuten duen umeak eskolan edo liburuetan "*txindi, gaubekaitz, oben...*" ikasten dituenen. Baliteke literaturaren bidez neologismoak herrian zabaltzea baina bitartean ez litzateke komeni *diru* eta *txindi* biak ontzat ematea? Zabalkunde handia hartzen duenean, zergatik ez erabili "*diru*" forma arruntagotzat eta "*txindi*" forma jasoagotzat? Ezinezkoa da errotik hain barneratuak dauden hitzak egun batetik bestera desagertzea.

Argi gera bedi hau ez dela neologismo edo arkaismoen kontrako kanpaina, ongi etorri hitz berriak eta arkaismoak, beharrezko baitira hizkuntzan lexiko zehatza eta espezializatua sortzeko, baina ez beste hitz batzuen lekua kentzera!

Herriaren hizkera errespetatzeak ez du esan nahi literaturak hizkera hori gaintitu behar ez duenik. Idazleak garbizaletasun antzu eta agortzailearen orde, aberastasuna bilatu behar du. Hizkuntza literarioa eta herriaren hizkuntza ezberdinak dira hizkuntza guztietan, hizkuntza literarioa, jakina, aberatsagoa, landuagoa eta garbiagoa da eta hala izan behar du. Euskararekin, ordea, garbizaleek ez dute bereizketa natural hori nahi, herriaren kulturari buruzko gaitan, Castellako idazle batek eta Castellako baserritar batek hitz berberak erabiliko dituzte. Baserritar euskaldunari, aldiz, idazle baten moduan hitz egiteko eskatu nahi diote.

Hitzak soilak balira... baina hizkuntzak Zuberoan hasi eta Bizkairaino komunean, berezko eta oinarrizko dituen elementuak ere aldatu nahi dituzte: deklinabidea eta aditzen jokia. Adibidez:

Herriaren formak

Goiko elizan
Gaurko egunean
Emen datoz aiztak
Amak aitari
Jabier **ek** esan deust
Ekarri **neban**
Neu be **banoa**

Proposatutakoak

Goiko elizean
Gaurko egunan
Emen datoz aizteak
Amak ateari
Jabierak esan deust
Ekarri leudan
Neu be bai-noa

Michael Bréalen hitzek laburbiltzen dute goian deskribatutako sarraski linguistikoa : "(...) *Cambiar la construcción, cambiar las locuciones, es tocar a las obras vivas, es atacar a un patrimonio que representa siglos de retoques y de esfuerzos*".

Euskalzaleek asmo ona izango duten dudarik ez dago baina bide okerretik dabiltzala jakinarazi behar zaie, hizkuntzari bizitzen baino hiltzen gehiago laguntzen dioten sendabideak ematen dizkiote eta 100 urtean linguistikan egin diren hizkuntzen bizitzen legeen azterketa sakonak aintzat hartu eta euskarari benetako salbazioa eskaini beharko liokete.

2.7.- Euskaldun berriak ez dira berriztapen horien kalteez ohartzen

Berriztapen horien defendatzaile sutsuenak euskaldun berriak eta normalean erderaz egiten dutenak, euskara literaturan edo hizkuntzaren gaineko azterketa teorikoak egiteko erabiltzen dutenak dira. Ulertzekoa da neurri batean jarrera hori, hots, hizkuntza aztergai hutsa denean berdin dio forma artifizial hau edo beste izatea, baina amaren bularretik edan duenari gaitz egiten zaio forma artifizialak erabiltzea.

Gauza bat da hizkuntza baten ezagutza artifiziala eta beste bat hizkuntza natural edo ama-hizkuntzaren ezagutza praktikoa. Altubek erderaz oso zehatz adierazten du zer den *"más que conocimiento es percepción íntima, transfusión o identificación del objeto conocido como el sujeto consciente. Del idioma íntimo o natural, mejor puede decirse que posee al sujeto que no que es poseído por éste; es algo consustancial con el sujeto que lo habla"*.

Benetan zaila egiten zaio euskaldunari beti *"lau alabak biotzean"* esan duenean orain, idazle batzuen nahikeriagatik *"Lau alabeak biotzan"* esan behar izatea.

2.8.- Berriztapen linguistikoak egitean ez dadila gustu pertsonalengatik izan.

Euskalzale askok forma berriak aukeratu eta proposatzean ez dute inolako irizpide zientifikorik, aurreiritziek eta gustu pertsonalak gidatzen dituzte.

Euskalzale horien apeta batzuen berri emango dugu: "j" soinu guturala gogoko ez dutenez, gipuzkeraren ezaugarri fonetikoa den "j" hori nahiz eta Araban, Bizkaiko zati handi batean eta Nafarroan erabili, baztertu egin behar dela uste dute. "i" baten ondorengo soinu sabaikariak *"oiño, miña, miña..."* ere ez dituzte gogoko eta *"oilo, mila, mina..."* inposatu nahi dituzte edo "aita, baita" formen ordez beste hauek proposatzea "aita, baita..." ez ote da pasatzea? Nola ahoskatuko du, ordea, beti *oiño, aitta* entzun duenak, *oilo eta aita*? Nork emango dio, gainera, horren eredia? Idatziz emango zaio?

Batzuek bazterketa hori arrazoitu nahian, soinu batzuk beste batzuk baino ederragoak direla defendatzen dute. Ant. Gregoire ez dago horrekin ados: *"No hay nada más variable...nada más relativo y más individual que el sentimiento de la belleza de los sonidos. En nuestra apreciación sobre el lenguaje no nos dejamos guiar por su sonoridad real, por su armonía intrínseca: obedecemos a la tiranía del hábito, y los sonidos más recomendables nos parecen, incontestablemente, aquellos que oímos y emitimos todos los días"*.

2.9.- Hizkuntza teknikoaren eta literarioaren arteko aldeak. Literarioa lantzeko, herriaren hizkuntza menperatu behar da.

Hizkuntza idatziak bi genero ditu: deskripzio tekniko edo zientifikoak, alde batetik; eta literarioa, bestetik.

Hizkuntza teknikoak edo definizio zientifikoetakoak pentsamenduaren azalpen zehatza eta argia egin behar du, beraz, formula idiomatikoak ez dira hain ugariak eta oso zehatzak dira. Hizkuntza mota honek ez du behar esamolde eta esaldi eginik eta horregatik hizkuntza bitarteko artifizialen bidez (gramatika eta hiztegia) ikasten duenarentzat eskuragarriagoa da.

Hizkuntza literarioa, ordea, herriaren hizkeraren forma ugarien beharra du deskripzioak edo pasarteak ahalik eta ederren adierazteko. Hizkuntza mota

hau ez da ikasten (gainera gurean gutxiago, literatura urria dugu eta) familia bidez edo giro euskaldunean ez bada.

Euskara artifiziala ikasi duten idazleek, literatura ederra lortu nahian, erderaz pentsaturiko eta sentituriko kontzeptuen euskaratze mekaniko eta zurruna baino ez dute lortzen. *"Así vemos caminar a nuestra incipiente y pobre literatura, desnuda completamente de aquellas galas, de aquella viveza, gracia y expresividad requeridas para congraciarse con el gusto artístico y aficiones de nuestra de suyo ya desidiosa masa popular"*.

1930ean "Uàunzuno´tar P. M.´en Ipuiak" argitaratu zen, Uàunzunok esamoldeak, esaerak eta beste lokuzio batzuk erabiliz oso ondo islatzen ditu euskal jendearen bizipenak eta sentipenak. Euskalzale batzuek ona iritzi zioten eduki aldetik baina akats bat zuen: hiztegi arrotza, hain zuzen ere, herriaren hiztegia. Euskalzaleen onspena lortuko bazuen hitzak beren nahietara egokitzea besterik ez zen.

2.10.- *Hizkuntza literarioa herriko hizkuntzatik bereizteak, bion arteko dibortzioak, lehenengoaren jaiotza artifiziala eta bigarrenaren heriotza ekar dezake.*

Errakuntza handia da pentsatzea hizkuntza idatzia ahozko hizkuntza kontuan izan gabe sor daitekeela. Hizkuntza artifiziala sor daiteke, jakina, baina horrek ez du eragingo ahozko hizkuntzaren aurrerapenean edo atzerapenean.

Vendryesek dioen moduan *"Es falso considerar el lenguaje como una entidad que evoluciona independientemente de los hombres, prosiguiendo sus fines propios. El lenguaje no existe fuera de aquellos que piensan y hablan. Sus raíces se hunden en la profundidad de la conciencia individual; de allí saca sus fuerzas para desplegarse en los labios de los hombres"*.

Gauzak aldatzen ez badira gerta liteke, euskara euskaldun askok euskara artifizialki lantzea eta gordetzea baina hizkuntza bizia edo ahozkoa galtzea. Hor dugu latinaren kasua, aditu askok landu eta aztertutako hizkuntza hila.

Vendryesekin jarraituz, linguista honek metafora honen bidez konparatzen zuen ahozkotik gehiegi aldentzen zen hizkuntza literarioa, *"es como la capa de hielo que cubre un río"*. Ahozko hizkuntza izotz-geruzaren azpitik pasatzen diren urak dira, izotz-geruzak batere eragiten ez dieten urak.

"Euskera-garbi" edo "euskera-beà" izenekoa literaturan edo ekitaldi ofizialetan soilik erabiltzen den hizkuntza da, hizkuntza hiletan idatzitako testuen antzeko produkzioak (inskripzioak, olerkiak, hitzaldiak, liburu ulergaitzak...) sortzen dituztenen hizkuntza da. Izotz-geruza azpitik doan euskara egiten duenari, eguneroko hizkuntza naturala egiten duenari etengabe irakasteko eta zuzentzeko balio dien hizkuntza: *"no se dice praile, sino lekaide; está mal meza, pekatu, eliza, kulpitu, kanpai, orgaiñu... se debe decir jaupa, oben, txonitzoki, juale, txauneskin..."*

Eta bien bitartean izotz-geruza azpiko urak hortxe, azpian, bizirik, irten ezinik.

2.11.- Garbizaletasunaren gorespenak herriaren euskararen gutxiespena dakar eta horren ondorioz, ahozko euskara hiltzeko arriskua

Euskara garbiak euskara indartu beharrean, dagoeneko erdararen eraginez, hainbat euskaldunek sentitzen duten euskararekiko gutxiespena areagotu egin du. Euskaldunari sentiarazi zaio bere hizkuntza, gurasoengandik ikasitako hizkuntza, bere sentimentu, ideia, iritzi eta abar transmititzeko duen tresna linguistiko bakarra ez duela balio ez soilik idazteko eta esparru jasoetan, bere hizkuntza hori, etxeko tresna hori, aldatu ezean, euskaraz hitz egiteko ezta antzerki bat euskaraz ulertzeko ere ez duela balio sentiarazi zaio.

Behin Gipuzkoako herri batean jaiak ziren eta antzerkia zegoen, euskaraz, izan ere. Baserritar asko joan omen ziren antzerkia ikusteko irrikitan eta ondo pasatzeko asmotan. Usteak erdia ustel! Hasi zen ikuskizuna, euskaraz omen zen baina ez zuten tutik ere ulertu, hainbeste berba ezezagunek ulergaitz egin zien eta guztiz etsita joan ziren etxera. Zer pentsatu ote zuten baserritar haiek euren hizkuntzaz? Ez da harritzekoa jende euskaldun askok euskara bertan behera utzi eta erdera ikasi nahi izatea.

Euskara garbiak folkloreakaren heriotza ere ekarriko du. Ahoz aho herriaren euskara "zikin"ean transmititutako ipuin, koplak, kanta zahar eta beste ere ez dira onargarriak, begira koplak honek zenbat "astakeria" duen:

*Zapatari apendiz bat
dago Biturijan
Barriak egin leikez
aren istorijan*

*Neskakaz barriketan
Beti iturrijan
Zazpi nobija ein ditu
Ile bi t'erdijan.*

(...)

Herriak gozatu egiten du halako kantuekin eta hunkitu ere bai "Gernikako Arbola" edo "San Inazioaren martxa"-rekin baina ez, euskalzale garbizaleen ustez, hori ez da euskara garbia eta berba arrotzak ordeztu egin behar dira eta ez da izango "Luzifer deabrua", "Luzifer gokaiztua" baino, eta "utzirik infernua" abestu beharrean "utzirik gaiztokia" abestu behar da. Eta herriak bere altxor hori batzuen nahikeria dela eta, belaunez belaun transmititutakoa aldatu egin behar al du? Berba horiek ordeztuta lortuko al da euskaraz gehiago hitz egin eta idaztea?

Arazoa ez da konponduko berbak aldatuz, ikusi dugu lortzen den bakarra euskaraz egunero egiten duena bere hizkuntzaz ere etsitea da. Euskararen

erabilera sustatzekotan, hizkuntza gutxietsi eta mesprezatu egin beharrean euskalzaleek egin behar luketena guztiz kontrakoa da: goretsi eta mirestu, betiere literaturaren bidez, beste hizkuntzetan gertatzen den legez, ahozko hizkuntza hobetuz eta aberastuz.

Euskalzaleek katalanaren aurrerapenarekin konparatzen dute euskara. Katalanak erdararekin duen antzekotasunak errazago egiten du katalana eta erdararen arteko lehia; erdara eta euskararen elkarbizitzan, ordea, euskararen berezitasunak lehia hori zaildu egiten du. Horrelako egoeretan, hizkuntzalarien esanei erreparatu behar zaie: *"En el asalto de los idiomas prepotentes por su cultura la virtud es pactar, dar la bolsa antes que la vida"*. Euskalzaleek, ordea, nahiago dute euskararen bizia eman boltsatik ezer galdu baino.

2.12.- Hizkuntzaren arima ez da hiztegia gramatika baino.

Hizkuntza garbiaren aldeko apustua barkagarria izango litzateke behintzat arau gramatikalak eta gramatika herriaren hizkuntzan ere zati handia (esamoldeak, esaldi eginak, esapideak...) ondo beteko balira baina ez da horrela gertatzen ari.

Hizkuntzaren oinarria gramatika da, hiztegiak berak ez du hizkuntza baten berezitasuna adierazten, hizkuntza horren arau gramatikalek baino.

"La gramática es lo que constituye la individualidad de un idioma" (A.. Hovelacque)

Albaniako hizkuntzaren kasua aipatzekoa da: latinetik, turkiarretik, eslaviarretik eta greko modernotik hartutako hitzak kenduz gero, ehuneko hamar baino ez dira antzinako iliriko hizkuntzakoak eta hala ere, ez du hizkuntza moduan berezitasunik galdu. Elementu arrotz horiek kenduz gero, ordea, ez litzateke hizkuntzarik geratuko.

2.13.- Zer dela eta jokutzen dugu euskaldunok printzipio linguistiko unibertsalen aurka?

Euskararen azterketetan akats bikoitza dago, alde batetik linguista profesionalek ez dute gure hizkuntza sakonki ezagutzen eta beste aldetik, hizkuntza primeran hitz egin eta ezagutzen dutenek ez dute linguistika orokorraren berri. Bigarren akats hau hegoaldeko euskaldunen akatsa da, iparraldekoak hizkuntzalaritzaren gaineko gaietan jantziago daude.

Hegoaldean euskaldunok hizkuntzalaritzaren printzipio zientifikoetan oinarritutako literatura filologiko bat landu beharrean, *apologetika* landu dugu. Hizkuntzarekiko maitasuna piztu badu ere, ez du printzipio linguistikoetan oinarritutako azterketarik bultzatzeko balio izan.

Astarloa durangarraren lan apologistak *"Apología de la Lengua Bascongada"* eta *"Discursos Filosóficos sobre la Lengua Primitiva"* eskertzekoak izan dira euskaldunoi gure hizkuntzaren berezitasunaren eta

edertasunaren berri eman baitziguten. XVIII. mendean ari gara, hizkuntzalaritza zientzia moduan ez zen garaiaz, alegia eta garai hartan Astarloak egin zuena laudatzekoa da. Gaur egun, ordea, ideia haiek ez datoz bat hizkuntzalaritzak erakusten duenarekin eta ezin diezaiokegu iraganari heldu. XIX. mendean geroztik hizkuntzen azterketa egiten duen zientziari erreparatu behar diogu.

Hona hemen hizkuntzen azterketa horren gaineko zenbait premisa:

a) Hizkuntzen jatorria eta antzinatea.

Noiz sortu zen hizkuntza? Nola? Non? Ez dago jakiterik.

Vendryes-ek dio hizkuntzaren jatorriaren arazoa ez dela arazo linguistikoa. Hizkuntzalariek hitz egiten eta idazten diren hizkuntzak aztertzen dituzte eta dokumentu zaharretan oinarrituta beraien historia eraikitzen saiatzen dira baina oso garatuak dauden hizkuntzekin baino ez dute lan egiten, iragan iluna duten hizkuntzekin.

Ant. Gregoirek dio hizkuntzaren jatorria, gezurra badirudi ere, ez dela linguisten kezka. Argi dagoena da hizkuntza ez dela gizakiak berariaz piezak elkartuz sortu duen zeinu sistema.

b) Norbanakoaren borondatearen eragina hizkuntzen garapenean.

Dauzat-ek dio : "*Todo concurre a que sean raras las acciones y reacciones de la voluntad en lo que concierne a las evoluciones del lenguaje... De todos modos, la acción de la voluntad, cuando ella se produce, no podrá ser alegada para poner en duda el determinismo lingüístico...*"

c) Lojika forma gramatikalen egituran eta azalpenean..

Vendryesen ustez, hizkuntza baten kategoria gramatikalen azterketarik sakonena eginda ere, ezin dira forma horiek sistema lojiko batera mugatu. Hizkuntza bakoitzaren gramatika sistema gramatikaren puntu ezberdinen aldaketan emaitza da.

"*¿Pero la perfección lógica es una perfección lingüística? Lo cierto es que no se encuentra en ninguna lengua natural*" (A. Dauzat)

Hizkuntzalaritza modernoak erabat baztertu ditu lojikan oinarritutako teoriak: gramatika lojikaren menpe dagoela eta gramatika zientzia deduktiboa dela. Hizkuntza ekintza soziala da, ekintza sozial guztien moduan iraganaren emaitza da. Hizkuntza ez da berariaz sortutako zerbait: gramatika ez da lojikaren forma bat, gramatika "*es una ciencia de observación que debe ser hecha de inducciones y no de deducciones*" (F. Brunot, *L'enseignement de la langue française*)

d) Zalantzazko etimologia.

Hovelacqueren esanetan, etimologia ez da ez zientzia, ez artea, gaur egun erabiltzen den moduan erabilia. Etimologia berez "*no es más que una juglería, una suerte de juego de espíritu*". Etimologistaren etsairik handiena hizkuntzalaria da. Etimologiak zer behar du zientzia izateko? "*Un resultado puro y simple. Resultado de la lingüística, resultado de la filología. Es deductiva en el primer caso, histórica en el segundo*".

2.14.- Euskalzaleen akatsa: hizkuntza hilak eredu.

Euskalzaleen okerreko planteamenduaren arrazoiatariko bat gaurko lingüistikako ikerketak erabili beharrean antzinako testuak erabiltzea da, euskalzale gehienen gramatika ezagutza hildako hizkuntzen azterketa eginez lortu dute.

Hizkuntza hiletan idatzia zuzena da, perfektua, jakina. Ez dago ahozkorik kontrakoa esateko baina hizkuntza bizia aldakorra denez, gramatikoak edo idazleak ezin du herrian bizirik dagoen hizkuntzaren kontra jardun eta berak nahi duen forma erabili.

Behin eta berriro esaten ari garena: egia da, hizkuntza literarioak ahozkoa baino hobea, zuzenagoa izan behar duela betiere ahozkoaren errespetuarekin; horrela izan ezean bi hizkuntza ezberdin izango ditugu: literarioa, artifiziala eta ahozkoa, heriotze-bidean.

2.15.- Nola berreskura daiteke galtzen ari den hizkuntza? Euskalzaleak eta abertzaleak. Euskara literarioaren batasuna.

Batzuek uste dute euskara salbatzeko abertzaletasuna zabaldu behar dela, beste batzuen ustez, euskara gorde eta zabaltzearen aldeko propaganda zuzena egin behar dela.

Aurreko iritziak kontrakoak ez direnez, ez dago eztabaidarik. Azter ditzagun aurreko paragrafoan agertutako zenbait kontzeptu.

Euskararen erabilera murrizten doa eta Euskal Herrian eta, bereziki, euskaldunen artean abertzaletasuna sustatzen ez bada, euskara galdu egingo da. Abertzaletasuna sustatzen den bitartean beharrezko-beharrezkoa da oraindik bizirik dagoen euskarari eustea; ezin dugu hiltzen utzi abertzaletasunak gero berpiztuko duelakoan, abertzale batek hala uste duen arren: "*Emoidazube neuri azkatasuna, euzkerearen azteàenik bape eztaukadala be, ta urte gitxi-baàu euzkerea biurtuko dautzuket sendo-sendo, zindo-zindo, indartsu, bixirik*". Euskararen aztarrenik ez izanda ere, nola lortu hizkuntza berpiztea? Oso erraz: "*Bakixube zer bihar dodan mirari ori egiteko? Iztegi bat (diccionario bat) eta euzkel-izti bat (gramatica bat)*".

Latinak gramatika eta hiztegia baditu, horiekin soilik badago latina ahoz berpizterik? Gramatika eta hiztegi osatuenak eta aberasgarrienak izanda ere, ezin dute hitz guztien balio semantikoak bildu, han eta hemengo erabilera

bereziak islatu. Zentzugabekeria galanta da pentsatzea hiztegi batek eta gramatika batek herri osoarengan hizkuntza bat hitz egitera bultza dezaketela, hizkuntza hori herritarren artean hilik badago?

J. Vendryesek "Le Langage" liburuan bretoiari buruz ari denean dio inork ez dakiela noiz arte bizirik iraungo duen, berrizatzeko, berpizteko gaitasuna izango duela hiztun ugari hizkuntza gordetzen duen artean.

Hizkuntza bat berpizteko bi baldintza behar dira:

- a) Hizkuntza hori jakin eta erabiltzen duen hiztun asko izatea eta hiztun talde hori hizkuntza erasotzailearegandik isolatua bizitzea.
- b) Ezagutza osoa izatea, hau da, familia bidez edo ahoz transmititutako hizkuntza izatea.

Hizkuntza gordetzeko ezinbestekoa da familia artean eta gizartean hizkuntza hori erabiltzea. Hizkuntzen bizitasuna ahozko erabilerak duen zabalkundeak eta intentsitateak neurtzen du.

Euskaldunak euskara erabiltzen duen bakoitzean euskarari indarra ematen dio, alde batetik, berak ere euskara hobetu egiten duelako; beste aldetik, entzuleei teoria guztiak baino baliagarriagoa den klase praktikoa eskaintzen dielako. Erderaz eginez gero, ordea, berba bakoitza herria erderatzearen aldeko ekintza da. A ze kaltea egiten dion euskarari euskaldunak erderaz egiten duen bakoitzean!

Hizkuntza gordetzeko lehenengo eta behin egin behar dena da euskara hutsez ari diren euskal familia eta herriak babestu, laguntza eman, hizkuntza literario egokia eskainiz (ohar bitez euskal idazleak!). Euskalgune horiek funtzeskoak dira euskarari eutsiko badiogu, ahozko transmisioa dagoen artean itxaropena dugu, hau etenez gero... jai dugu. Ez gramatikak, ez hiztegiak berpiztuko dute hilik dagoen hizkuntza.

2.16.- *Linguistikaren ekarpenak.*

Hizkuntza gaixorik dugu, heriotza ekar diezaiokeen gaitza sendatzeko sendabide eraginkorra bilatu behar da. Sendabidea, ordea, zientziak du; hizkuntzen kasuan hizkuntzalaritzak. Euskal idazleek ez lukete euskara salbatzeko erremedioa beste inon bilatu behar, linguistikan baino. *"No es posible hacerlo si acudimos al lado del cuerpo enfermo del euskera, llenos de prejuicios y de apasionamientos; buscando su fortalecimiento, no por las vías y métodos preconizados por a ciencia, sino por otros sugeridos por aficionados, dotados, sí, de inteligencia y de inspiración, pero no de la preparación técnica necesaria para la resolución de un problema lingüístico tan grave como el nuestro".*

Euskalzaleek ez dute zientifikoki jokatu hain garrantzitsua den gai honetan, ez dute kontuan izan ez linguistika, ezta antzeko egoeran dauden beste hizkuntzetan egin dena ere. Oso garrantzitsua da euskalzaleek

hizkuntzen zientzia ezagutzea eta aztertzea benetan zer komeni den euskararen gaitza sendatzeko.

Ez gaitzen atzean gera, beste herri batzuetan aspaldi ezagunak diren aurrerapen eta teoria berrietan. Kontura gaitzen euskararen garbitze lan horrek dakartzan kalteez! Garaiz gaude hartutako bide okerrak zuzentzeko.

3.- NABAÀIZTAÀA

“Euzkerearen igeskundea”-ren arrazoia, dio Nabaàiztaàak, ezin egotzi dakieke 40 urteotan aritu diren idazleei. Idazleen ahozko eta betiko euskara garbitzeko idazleen ahalegin hori dela eta, Altuberen salaketaren aurka Nabaàiztaàak idazleen lana goraiatu eta ezinbestekotzat jotzen du euskara berreskuratzean. Nola azal daiteke, orduan, euskararen galera Errioxan, Araban eta Nafarroan idazlerik egon ez den aldian?

Euskara ahoz aho irakatsi eta iraunarazten dela argi eta garbi aitortzen duen arren, uste du ez dela euskarak bizirauteko behar duen baldintza bakarra, familian ez baita gizartea amaitzen, umeei sei urte arte etxeko euskararekin nahikoa izango dute baina hortik aurrera kalea, lagunartea, eskola... esparru ezberdinekin topo egingo dute eta nola egin aurre familia arteko euskara baino ez duela, landu gabeko euskara duela?

Hitz egiteak garrantzi handia duela egia da baina idazteak ere ez du garrantzi gutxiago. Idaztean bi errejistro bereizi daitezkeela dio Nabaàiztaàak: *“Eàjjari artez eragin al-ixateko, bai idazkunak eàiko izkereari egokitu biar”*. Onartzen du, beraz, Altubek herriari hurbiltzeko ahalegina beharrezkoa dela. Baina berak beste errejistro bat ere aipatzen du, euskara garbia eta jasoa erabiliko duena: *“Ikastunentzako idazkunak, baàiz, alik garbi ta txukunenak ixan biar litxakezala deritxot, areik euzkerea ondo ikasi dagikientzat. Gero eurekandik ikasiko dau eàjjak”*

Herriak erabiltzen dituen era okerrak zuzendu beharra dago *“Ara: berori'ka alkaàì itz-egitia, asko zabalduata egonaàen, euzkereak berezkua eztaunezkero, ¿zegatik bazteàtu ez?”* hiztegia (*trinidadia, diabrua, sakramentua...*) baita era morfologiko okerrak ere *“gauàko egunan, emen datoz aizteak, amek ateari...” Erdeltzaindiak* ere horrela egiten du erderaren kasuan. Argi dago erderatiko hitzez nahastu gabeko euskera euskerago dela, beraz, joskeran, hiztegian dauden erderakadak baztertu egin behar dira nahiz eta herriak onartuak dituen. Prozesuak ez du izan behar egun batetik besterakoa, jakina, apurka-apurka egin beharreko zerbait da. *“Aipidez: inpernuko oñaziak esan, edo gaiztokiko oñaziak esan, oraingo entzula geyenentzat ezta baàdin ixango. Oàegatik, txonitxetan batez-be, inpernu itza ezta gustiz bazteàtu biaàko, berein urtetan beintzat”*.

Erderazko hitz batzuk onar daitezkeela uste du Nabaàiztaàak, beste batzuk, berriz, apurka-apurka hitz zaharrez edo berriez ordeztu behar direla.

Euskararen atzerakadaren errua ez du euskal idazleak, euskaldunak berak baino, euskaldunak ez baitu hizkuntzarekiko ardurarik eta. Euskararik “mordolloena” erabilta ere, ezin izango zen euskararen atzerakada hori geldiarazi.

Garbizaletasunari esker, euskarak zuzentasunean irabazi du, hitzak ez ezik joskera ere zuzenagoa da euskal idazle garbizaleengan.

Beste hizkuntza batzuek ere mailegatu dituzte hitzak baina ezin da konparatu euskararen jazo denarekin, neurri gabeko onarpena izan da eta. *"kafe kon letxia, notxeko mesia..."* bezalako hitzak edo *"Gernika'ko arbola da bedeinkatua"*, hain zabaldua izan arren, abesti horren erderazko hitz eta joskera onartu behar direla? Honelakoak onartuz gero, zer geratzen da euskaratik?

Hizkuntza garbitzea aldatzea dela? Nahikoa aldatuta dago lehen ere erderaren eraginez. Herriak euskararen arauen arabera sortutako hitzak laster ikasiko ditu, erraz ulertuko ditu. Lortu behar dena da herriak pentsatzea: *"izlari oàrek euzkera garbija darabil, baña, dana uleàtzen yako"*.

Altubek dioen moduan, hizkuntza eta horren aldaketa gizarte ekintzak direla argi dago; izan ere gizakumeak berak aldatzen du hizkuntza. Dena den, onartu behar da aldaketa hori herriarekin batera egin behar dela, apurka-apurka, herria astiro dabil eta.

4.- LUIS DE GARAI

Gero eta euskara gutxiago egiteko joera nabarmena da eta erdara etengabe zabaltzen ari da gure artean. Gaitz honi sendabidea aurkitzeko gaitz hori zerk eragiten duen jakin behar dugu aurrena. Altubek argi du zein den euskararen atzerakaren errudun nagusia, XX. mende hasierako euskalzale garbizaleen mugimendua, hona hemen Altuberen hitzak: *"La causa principal del reculamiento o retroceso del euskera debe ser imputada a la generación actual; a los vascos que en estos últimos 40 años nos hemos dedicado a la resolución del arduo problema de la conservación del euzkera y su elevación al rango de idioma literario"*. Altube oker dabil, izan ere hizkuntzaren atzerakada eragiten duten arrazoiak aspaldikoak dira, herriko euskeraren formak beste forma artifizial batzuegatik ordeztu nahi zituen idazlerik ez zen garaikoak, alegia. Beraz, zer dela eta egotzi oraingo idazleoi erru guztia? Nola azal daiteke orduan 1800-1850 artean, idazle garbizalerik ez zen garaietan, Nafarroan eta Araban euskararen galera? Gainera, azken 40 urteotako aurrerakuntza nabarmena izan da, jendeak euskara maite eta ikasi egiten du, inoiz baino gehiago idazten da, lehen mende batean idazten zena orain urtebetean idazten da.

Euskaldunek euskara alde batera utzi eta erdara erabili nahiago izateko joera betikoa da, beraz, ez da gaur eguneko arazoa, ez da garbizaletasunak eragindako kaltea. Izan ere, Altubek euskararen arazoari ikuspuntu linguistiko hutsetik erreparatu eta beste hizkuntzetarako balio duten printzipio orokorretan onarrituta aztertu du euskara. Hori baino konplexuagoa da arazoa, elementu sozial eta politikoa ere kontuan izan behar dira.

"Hizkuntzen aferan politikak zer ikusirik ez duela dioena oker dabil" - dio Garaik. Ikusiko dugunez, Garaik politikan oinarritzen du euskararen arazoa eta horri aurre egiteko neurriak planteatzen dituenean.

Zein da euskararen arazoa? Euskal seme-alabek euskaraz baino erdaraz egiteko joera handiagoa erakusten dutela. Zerk bultzatzen ditu horretara? Literatura artifizialak? Euskara garbitzeko ahaleginak? Azter dezagun sakonago zer dagoen joera horren azpian.

Familia artean egiten den euskara, jakina, ezin da ukatu hizkuntzaren oinarri garrantzitsua dela baina familian ikasitako hizkuntza elikatu egin behar da, landu, aberastu gizartearen esparru guztietan hizkuntza horretan jarduteko arazorik ez izateko. Baina zer gertatzen zaio, ordea, euskaldunari? Bilbora joan eta erdaraz hitz egin behar, gai serio samarretan erdaraz aritu behar. Beraz, euskaldunak, praktikoa izanda, aukera bakarra du gizartearen, kultura maila bateko esparruetan aritu nahi badu: erdara ikasi.

Zer egin daiteke euskaldun hori euskaraz egitera bultzatzeko? Garaik badu erantzuna. Arazoa - dio Garaik - ez da erdararen nagusitasuna eta honen zabalkundea, beste batzuen ahotan, erdararen eraso. Arazoa gure baitan dago, geuk dugu: ez dugu euskaldun nortasunaren kontzientzia, horixe da euskaldunari falta zaiona. Arazoa da ez dakigula nortzuk garen, ez dugu herria

garen sentimendurik. Nekez borroka daiteke ez dagoenaren alde, herriaren, hizkuntza baten kontzientzia izan ezik zeren alde borrokatu? Ez dago arrazoirik.

Aberri askearen alde borrokatu behar da, askatasunak ekarriko baitio euskarari salbazioa. Euskararen arazoa Euskal Herriak askatasuna lortuko balu konponduta izango litzateke. Horrexetan datza, beraz, borroka: euskaldunengan euskaldun kontzientzia piztean, nazio baten eta hizkuntza baten aldeko borrokan. Beraz, argi dago ezin dela euskararen auzia termino linguistiko hutsetan eztabaidatu. Horrela dio Garaik: *"Pero esos males quedarían sin raíz si el pueblo vasco tuviera su plena libertad. La lucha del euzkera tiene que ir en armonía con la lucha por la libertad nacional"*.

Argi dago, halaber, kontua ez dela Altubek ikusten duen moduan, hizkuntzen bizitza edo heriotza familia barruko eguneroko borrokaldietan eta herriko jendeak hizkuntza baten edo bestearen alde egitean erabakitzen dela dioenean. Borroka ez da familien edo herriko jendearen artekoa, borroka nazionalitate biren artekoa da: bata, lege eta bitarteko guztiak dituen artean, besteak ez du inolako laguntzarik eta gainera ez du herri moduan nortasunik.

Ez da nahikoa hizkuntza erabiltzea edo lantzea, ezinbestekoa da erabiltzeko borondatea indartzen dituen arrazoiak izatea. Lehen ere euskara erabiltzen zen baina ez, maite zutelako, besterik ez zekitelako eta hori ez da motibo nahikoa hizkuntza bati eusteko, erabiltzeko kontzientzia behar da piztu euskaldunengan.

Familiako hizkuntza bitarteko garrantzitsua da hizkuntza osatzeko baina familia horri hizkuntzari eusteko gogo bizia eman behar zaio. Gogo horrez gain hizkuntza egokia ere eman behar zaio. Zer egiten dugu kontzientzia izan eta euskara gizartearen esparru guztietan erabiltzeko prest ez badago, tresna egokirik ez badugu?

Hizkuntza egokitzeak Altubek batere gogoko ez duen garbiketa egitea dakar, alegia, herriak erabiltzen dituen era okerrak baztertu eta egokiagoak eskaintzea. Horretarako antzinako euskarara jotzen du idazleak edo hitz berriak sortzen ditu, Altuberi hain gaitzesgarriak iruditzen zaizkion neologismoak. Onartu egin behar da, dena den, prozesu hau ezinbestekoa dela eta askotan ez dela herriarentzat hain traumatikoa zeren garai batean herriak arrotz egiten zitzaizkion berbak denbora pasa ahala bereganatu eta arruntki erabiltzen ditu. Gainera herritarrarentzat ahalegin bertsua da erdarazko hitza edo neologismoa ikastea. Garrantzitsuena hemen ez da hitzen arteko borroka hau, funtsean behar dena da euskaldun jantziak, eskolatuak eta horretarako euskal eskolak sortu beharko lirateke.

Hizkuntzaren egokitze, garbitze, atontze horretan egongo da, jakina, euskaldunei literatura ulergaitza egingo zaien garaia baina hori hizkuntza guztietan gertatzen da, herri xumeak beste herrialde batzuetan ere ez die bertako idazleei den-dena ulertzen eta are gutxiago gai espezializatuak direnetan. Hortaz, non da arazoa?

Garbitzea beharrezkoa da eta hala ikusi dute beste nazio batzuek ere, espainolak saiatzen dira egunero hizkuntza garbitzen, hor dago hitz exotikoen aurkako iparrameriketako kanpaina garbitzailea ere. Eta ez dute guk dugun bezainbesteko premia hizkuntzari nortasun berezia eta propioa emateko.

Orain dela 40 urte sortu zen, batez ere, Bizkaian eta Gipuzkoan "renacimiento euzkerista" izeneko mugimendua eta hau izan da euskarak egin duen aurrerakadaren eragile nagusia. Sabino Aranari zor diogun mugimendu honi esker sortu dira gure herrian euskal idazleak, olerkariak eta historiagileak, euskarazko aldizkariak, egunkariak eta abar. Eta lorpen horren eskerronik? Ez, batzuen aldetik ez dago. Ondo zekien hori gure maisuak: *"El euzkera apenas sirve más que para hablar de las labores del campo. Pero encierra en sí elementos abundantísimos que, bien desarrollados, le harían de hecho la lengua más rica del mundo. Intentadlo y os llamarán geniales innovadores y aún enemigos de la tradición vasca"*.

Egia da euskaldunak ez duela euskaraz irakurtzen baina horren arrazoia euskara garbia, herriaren hizkeratik urrundua erabiltzea dela asko esatea da. Zer dela eta orduan herriko euskara "euskara motrolloa" erabiltzen zuen "Euskalzale" aldizkaria bezalakoen porrota? Aldizkari hura orduko euskaldunek euskaraz irakurtzen ez zutelako hil zen eta ez diezaiegun Benafarroako eta Lapurdiko egoerei begira, hango egoera ezberdina da eta.

Kirikiño jartzen du Altubek herriari zuzentzen zaion idazle eredu moduan, baina, Altuberen ustez, herriarentzako literatura egin duen idazle bizkaitar honek ere esan behar da ez zuela lortu hainbesteko arrakastarik, "Bigarren Abarak" argitaratu zenean argitaratzaileak kexu ziren ez zutelako ale bat bera ere saldu. Zer esan nahi du horrek? Agian pentsatu behar dena da, euskaldunak herriko euskara erabili gorabehera, ez duela behar besteko zaletasunik euskaraz irakurtzeko. Gainera hain goretsia den Kirikiño jator hura Altubek uste duen baino puristagoa zen, horren lekuko dira bere idaztietako hainbat berba: *irakurri, idatzi, andrakila, deun* eta abar luzea. Eta berba arraro horiek gaur egun normalki erabiltzen du herri xumeak ere. Egia da beste hitz arruntagoen zale ere bazela: *erremediu, koplá...* Kirikiñoen meritua da ondo zekiela euskara egoera ezberdinetara egokitzen, herriari zuzentzean arruntago aritzen zen baina maisuaren moduan beti ahalegintzen zen neologismoak edo berba garbiak sartzen tarteka, herria berba berri horiez konturatu ere gabe jabearazten. Neologismoak zabaltzen lan handia egin zuen, bera izan zen *Ron Negritaren* ordeztu *Neska-baltza* irakatsi ziguna. Kirikiñoen aipamen hau bukatzeko eta ondorio moduan esan behar da, herriak neologismoak behar bezala aurkeztuz gero onartu egiten dituela eta horixe da, hain zuzen, sabindarren eskolak egiten duena.

Bestalde, beste galdera hau ere egin beharrekoa da: zergatik erabili behar du idazleak herriko hizkera herria da-eta askotan hizkuntza gaiztotzen duena? Hizkuntza zaindu, zuzendu eta garbitu egin behar du idazleak.

Kanpoko literaturari (gaztelania, latina, grekoa) erreparatzen badiogu neologismoak erabiltzeko joera ikusiko dugu, hor dago, esaterako, gaztelaniaren historian XIV eta XVII. mendera arteko literatura (Fray Luis de

León, Fray Luis de Granada) edo latinaren kasuan Ciceronek idazten zuenean grekoa zirudien gehiago latindarra baino. Eta gaur egun estilo hura erraza egiten zaigu, arrunta.

Nork du euskara ez erabiltzearen errua? Euskaldunak. Berauek dira euskararen etsai nagusiak, ez dute euskaraz hitz egin ezta irakurri ere egin nahi. Zergatik hori? Euskal nortasunaren kontzientziarik ez dutelako. Euskal nortasunaren kontzientzia lortu duten abertzaleak baino ez dira euskaraz arduratzen. Euskara ikasi dutenak, euskaldun berriak, dira, hain zuzen ere, Altubek onartu nahi izan ez arren, euskara defendatu eta bizitza modernorako prestatu eta zabaldu nahi dutenak.

Euskara salbatzeko abertzaletasuna sustatu behar da. Zenbat euskaldun ezabertzalek irakurtzen zuen Kirikiño? Zenbat idazle ezabertzale egon da azken 40 urteotan? Herriko euskarak ez du idazlerik eta irakurlerik sortzen, abertzaletasunak baizik. Bada euskaldun abertzalerik euskara maite ez duenik edo goستن ez duenik? Bai, egia da, zoritxarrez badirela ardi beltzak ere gure artean, abertzaleak izan arren, erdararen abantaila material eta sozialak aprobetxatuz, erdaraz idazten dutenak.

Arazoa hau da: Euzkadi beren kultura, hizkuntza, ohiturak inposatu nahi dituzten bi naziok inguratuta dago. Gure ohiturei, kulturari eta hizkuntzari eusteko aberria isolatu beharra dago, ez dago beste irtenbiderik. Aberria eta hizkuntza bera zenbat eta isolatuago, orduan eta babestuago egongo da, beraz, hizkuntza isolatzeko bereiztu egin behar da, erdarazko hitzak eta egiturak erabat baztertu egin behar dira.

Nola egin garbiketa? Bi modu egon behar dute: bata, literaturan erabiliko dena, zabalagoa eta berritzaileagoa euskara munduko hizkuntza bezala ezagutarazteko; bestea, moderatuagoa, herriko kulturari buruzko kontzeptuez jarduteko. Badira, Altube jaunak ezagutzen ez baditu ere, hizkuntza erraz eta argian idatzitako egunkari eta astekariak. Altubek kritikatu beharko lituzkeenak dira euskaraz irakurtzen ikasi ez duten euskaldunak.

Altube herria defendatzean pasatu egiten da. Herrialde guztietako idazleek herriaren era okerrak zuzendu eta forma berriak sartzen dituzte gero herriak irakurtzean ikasi eta onar ditzan. Literaturak hizkuntza aberastu egiten du, hobetu, aldatu.

Hizkuntza literarioa herriko hizkuntzatik alden du egiten da baina herriko hizkerak dituen alderdi onak hartuz. Guk literarioa eta herrikoa bat izan daitezen nahi dugu, gure Arrazaren hizkuntza goetsiz eta garbituz. Jendeari irakurzaletasuna pizteko gai erakargarriak eskaini behar zaizkio. Argi dago olerkari zahar baten poemek, nahiz eta herriko euskara jatorra erabili, ez dutela erakargarritasunik, ale horiek ganbaran amaitzen dute. Lizardiren lanak, osterak, herriarentzat hain ulergarria izan ez arren, "Biotz-begietan" izenekoak arrakasta izan du. Puristen lanek arrakasta izan dute. Herriak barre egiten diela neologismoei? Ezjakina beti trufatzen da jakitunaz. Non dago muga esateko berba hau euskara barriarena da eta beste hau euskara zaharrena? *Kolare, biñagre, platera* euskara zaharra dira eta *zali, ozpin eta azpil* euskara berria?

Altubek euskara berrikotzat ditu ikurrin eta abenda, oraintsu sortuak badira ere, oso sustrai zaharrak dituzte. Altuberentzat, *bandera* eta *arraza* izango dira, nosk, euskara zaharreko formak. Oso erraza da linguistikek egiten dutena idazleei zuzendu baina zailena, jaunak, sortzea da. *Euskera*, Euskaltzaindiaren organo ofiziala, erderaz idatzia: nola izan daiteke hau? Has daitezela euskaraz idazten ea puristek baino hobeto egiten duten eta ea herriak irakurtzen duen.

Euskara garbiak herriko euskara mesprezatu eta galarazi egingo duela? Euskara axola ez zaion euskaldun ezabertzale bati berdin dio berak egiten duen euskara herrikoa ala literarioa den, berak egiten duen euskarak ez duela balio Bilbora joaten denean eta modu txarrean edo erantzuten ez diotela ikusten duenean, hizkuntza alde batera utzi eta erdara ikasiko du, abertzaletasunik izan ezean oso jarrera lojiko delaren esan behar da. Euskalduna praktikoa da eta ikusten badu bizitzan defendatzeko ez diola balio, alde batera utziko du. Egin dezagun beharrezko bizitza sozialean eta baserritarrak bere hizkuntzari eutsi egingo dio. Hori garbi ikusten da baserritarren irribarrean Bilbora joan eta zerbait non dagoen euskaraz galdetu eta euskaraz erantzuten dietenean. Orduan euskarak erderak beste balio duela konturatzen dira.

Askotan aipatzen du Altubek atzerriko errealitatea eredu bezala baina hizkuntza guztietan egiten da kanpoko hitzen garbiketa. Akademia fantzesaren estatutuetan, 24. artikulua dio: "*La principal función de la Academia será la de trabajar con todo cuidado y con toda diligencia posible para dar a nuestra lengua reglas fijas, hacerla pura, elocuente y capaz de tratar las artes y las ciencias*".

Cataluñan, Cataluñako aditu ospetsua, Pompeyo Fabra ere Altuberen ustez oker egongo da hemen egiten ari garen hitzen garbiketa prozedura bera defendatzen duelako katalanaren biziraupenerako: "*En cuanto a la obra de saneamiento sería un error que ya no nos falta sino dar unos ligeros retoques al sistema gramatical, concluir de fijar la sintaxis, acoger hospitalariamente a esta o aquella voz arcaica o dialectal. En el momento en que el catalán va penetrando en medios de los que hasta ahora estuvo desterrado, se ve cómo todavía la obra de depuración de su léxico está inacabada. Hay que rehacer los vocablos técnicos: una infinidad de cosas de los oficios, de las artes y de las industrias son designadas con voces castellanas; un día si y otro también llueven las preguntas de cómo se dice en catalán tal cosa, de cómo y por qué no debería decirse, o de cómo, en suma, debería transformarse. En cuanto a la obra de difusión de la lengua, puede afirmarse que es ahora cuando justamente comienza. Y habremos de acometerla con el máximo esfuerzo, porque, entendedlo bien, no se trata solamente de difundir el uso del catalán en el sentido de que la gente se acostumbre a escribir perfectamente en nuestra lengua, en lugar de escribir sólo en lengua castellana, sino de ensanchar el conocimiento de la lengua literaria, de nuestra lengua depurada y normalizada, que tanto nos ha costado elaborar y que no es el pobre catalán que la mayoría de los catalanes habla, ni el que escribe, plagado de castellanismos y de vulgarismos vergonzosos. El catalán corre peligro, ahora más que nunca, de convertirse en un calco de la lengua castellana. En un régimen de bilingüismo,*

el único medio de resistir a la influencia perturbadora de la lengua forastera es el conocimiento perfecto de la lengua materna".

Altuberen ustez, herriari literatura eman behar zaio, euskara batuan eman ere. Zer egin behar da orduan? Laborategian egindako euskara edo herri bateko euskalkia inposatu. Gaur zaila egiten bazaie beren eskualdeko hizkuntzan irakurtzean, zer kostako zaie beste eskualde edo probintzia batekoan edo laborategian sortutako hizkuntzan irakurtzea?

Sabinoren hitzak laburtzen dute egin behar dena: *"Haced que el euzkera sea necesario en su patria, y entonces, no lo dudéis, ningún hijo del pueblo lo ha de olvidar. Haced que sirva para educarse, para prosperar, para vivir, para ilustrarse, y entonces el que lo posee hallará razonable conservarlo, y el que no lo habla podrá moverse a aprenderlo. Entretanto al primero sólo le sirve de estorbo; al segundo sólo le serviría de vano lujo".*

Aurreko guztia lortzeko beharrezkoa da askatasuna. Hau izanda, udaletxe, bulego eta beste lanpostu ofizialetan lan egiten dutenei eska dakieke euskaraz hitz egitea, baita goi mailako ikasketak dituztenei edo bigarren mailako irakaskuntzakoei. Orduan ikusiko genuke jendea euskaraz jakiteko eta erabiltzeko arduraz. Eta gramatikari eta hiztegiari dagokienez ez genuke kezkarik izango.

Amaitzeko eta laburbilduz esan daiteke euskara hiltzen bada ez dela idazle edo puristen erruz, euskaldunen beren erruz baizik, ez baitute hizkuntza erabiltzeko premiarik ikusten. Euskara maite duten euskaldun abertzaleei esker geladiarazi da euskararen galera neurri handi batean.

Herriak ondo asko daki zer egin behar den euskararen alde. Gertakari bat kontatuko dut hori erakusteko: Bizkaiko herriska batean alkateak honako errotulu hau jartzeko agindu zuen "Ederti ta Langintza-Eskolia", egun batzuetara herri abertzaleak, alkateak baino jakitunago jokatuz, eskolia ezabatu eta haren ordeaz ikastolia jarri zuen.

Euskarak bizi nahi duten hizkuntzen bide bera jarraitzen du baina aberriak aske izan behar du, aberria beste baten morroia bada hizkuntzak ezin izango du biziraun. Askok egin daiteke gramatikan eta hiztegian baina erabiltzeko borondaterik ez badago hil egingo da. Berrogei urteotan hori da lortu dena: borondatea piztea. Horri esker, euskarak aurrera egin du, jendeak euskara ikasten du ez linguistika maite dutelako, Euzkadi aberria maite dutelako baizik.

5.- MIBISUS

Altubek euskara jasaten ari den atzerakadan Euskal Herriaren historian aspaldikoak diren arrazoi politiko eta sozialez gain, beste arrazoi bat dagoela adierazi du: azken 40 urteotan Euzkerari maila literarioa eman nahian herriaren eguneroko hizkera ahaztu duten idazle eta euskalzaleen lana. Segidako lerroek Altuberen salaketa horren bidegabekeria erakutsiko dute.

5.1.- *Hizkuntza ahoz aho transmititzen da.*

Altuberen hitzaldi horren oinarria hizkuntzaren ahozko transmisioaren garrantzia da. Familian ikasten den hizkuntza bizia, naturala, adierazkorra ezin du literaturak ito, literaturak herriaren arima horri lagundu egin behar dio, hobetu egin behar du.

Aurrera jarraitu aurretik, argi gera bedi aranatarren eskolak ez duela aurreko puntuari dagokionez inolako eragozpenik, izan ere ahozko euskararen defentsa egin du beti fonetikan.

Halere, badira aranatarrok Altuberekin ados ez gauden zenbait alderdi:

1.- Ahozko hizkuntza familian ikasten da. Makina bat adibide daude, bat kontatzearen: Bazen behin Bartzelonan bizi zen familia euskalduna, seme-alabak Bartzelonan bizi eta hezi ziren, Euzkadira udan baino ez ziren etortzen. Halere, familia honetan euskarak biziraun zuen, gurasoek eta neskame-morroiek euskaraz egiten zutelako. Seme-alabek euskara ederto ikasi zuten kalean eta eskolan erdera ikasi zuten moduan.

Familia, ordea, ez da hizkuntza ikasteko toki bakarra, askok etxean erdera hutsa izan arren, euskara hutsa egiten den herrietan kalean ikasi dute euskara.

2.- Familiako hizkuntzan egiten diren akatsak ere kontuan hartzekoak dira:

- a) Euskaraz hitz egitea soilik neskame edo morroiarekin eta seme-alabekin; guraso, osaba-izeko eta abarrek erderaz aritzen dira baita seme-alaben aurrean ere. Oso akats handia. Umearen aurrean euskarari garrantzia eta beharrezkoa kentzen zaio, erderari prestigioa emanez.
- b) Euskara beti ez erabiltzeak umeak hizkuntza osotasunean ikasteko aukerak murrizten ditu eta nagusitan hizkuntza mugatua izateko arriskua izango du.
- c) Gutun bidezko harremanak familian erderazkoak izaten dira, nahiz eta inork ulertu ez. Euskaldunen arteko harremanak euskaraz izatera bultzatzeari ekin behar zaio, idazten ez irakurtzen ez dakiten aitzakia aintzat hartu gabe, praktikatu egin behar da eta horrela ikasten da. Erderaz ere ez dakite eta praktikaren bidez batzuek ikasi egin dute.

3.- Literaturak ahozko kultura goratu egin behar du. Literaturak ahozkoaren jantzia izan behar du.

Literaturaren helburua herriari ezagutzen ez dituen kontzeptuak ekarriko dizkio, herriak erabiltzen ez dituen hitzez jabeaz, beste leku batzuetatik mailegatutako hitzak izango dira batzuetan, beste batzuetan, hizkuntzaren beraren legeez baliatuz sortutakoak.

Berben alorrean bereizketa batzuk egin beharra dago, badira hitz batzuk anaiak direnak, ez sinonimoak; badira kontzeptu batzuk eratorriak, beste batzuek sortuak. Ahozko hizkuntzan ez dira ñabardura hauek antzematen eta askotan hitz batek gauza bat baino gehiago adierazten du. Literaturaren egiteko bat hori da, zehaztasuna: hitz bakoitzaren ñabardurak kontuan hartuz behar bezala erabiltzea. Horrek hitz berriak sortzea edo mailegatzea dakar. Sabino Arana Goiri beharizan horri aurre egin nahian sortu zituen, adibidez: *ata*, *aita* (*padre natural*) / *aba* (*padre espiritual*); *anai* (*hermano*) / *ana* (*hermano en religión o fraile*); *itz* (*palabra o verbo*) / *Auti* (*Verbo o hijo o palabra de Dios*).

Eresi (canto fúnebre) hitz zaharrak adierazten dituen kontzeptu ezberdinak (narración de la vida o historia del difunto, la descripción de su persona y el canto de todo ello) izendatzeko hiru sustrai eratu zituen. *Eresi* (canto), *edesi* (narración, historia) eta *elesi* (descripción).

Beste adibide bat: *agindu* aditza. *Agindu* (mandar y prometer), bi esanahi horiek bereiztu egin ziren *agindu* (mandar) eta *abindu* (prometer).

4.- Hitzak sortu beharra ezinbestekoa egiten da teknologiaren arloan. Auzoko hizkuntzak normalean latinera edo grekora jotzen dutenez batzuek uste dute euskarak ere zientziaren unibertsaltasunaren izenean berdin jokatu beharko lukeela. Baina egia esan, jatorrizko euskaldunak beharrezko ditu? Ez ditu kontzeptuak ulertzen, ez ditu hitzak antzematen. Alegia, kontzeptu batzuk ez ditu herriak behar, karrerako jendeak erabili eta bereizten dituen kontzeptuak ez dira herriko kulturaren baitakoak. Behin apaiz batek zalantza hau izan zuen: euskaraz nola bereizi behar ziren "grazia aktuala eta abituala", laster eman zion irtenbidea eta hala ebatzi zuen: egikorra eta ekandukorra. Zertarako sortu hitz berriak, ordea, eliztarrek kontzeptuen bereizketa ere antzematen ez badute?

Lehenengo herriari kontzeptuak eman behar zaizkio eta honela azaldu: Zer da grazia gure arimentzat? Baratzetako landareen bizigarri den ura bezalakoa, baina ur mota bi daude: geldi daudenak (*como los de las aintziras, idoyes, oxines*) eta beste batzuk mugikorrek, gelditzen ez direnak (*como las delo ibayes, latsas, erekas*). Gauza bera gertatzen da gure arimekin ere: batzuetan geldi dago, *iraunkorra*; beste batzuetan, ez da gelditzen, *igazkora*. Behin kontzeptuak herriarengatuz gero, hitzak ere bereganatuko dituzte.

5.- Herriaren lexikoa. Hiru maila daude:

a).- Jatorrizko euskal hitzak: lokalak edo orokorrak izan daitezke, horien alde borroka sutsua egin behar da erdarazko hitzek ordeztu ez ditzaten. Lokalak direnean beste herri batzuetara zabaldu egin behar dira. Adibidez,

ulertu, comprender, bizkaierazko forma da, *oldoztu*, piriniotako euskalkikoa. Erabilera aldetik mugatuak badaude ere, erro berekoak dira: *ol alde* (alam, espíritu, voluntad), bizkaierak *ol - ul* eman du eta horrela sortu du *ulertu*. Beraz, kontua da pirinioetakoek gure *ulertu* onartu behar dutela eta ez, *endelgatu*, *konprendidu* eta *guk*, *oldoztu* eta ez, *pensau*.

Hau ezinbestekoa da euskara biziberritzeko eta euskalki ezberdinetako euskaldunen arteko harremanak errazteko.

b) Erderazko jatorria dutenak. Horietako batzuk lexikoan, toponimian eta hizkuntzan hain sakon sartu dira non ezinezkoa den ezabatzea. *Ondo*, *hondo* hitz erromanikoak ekarri zuen euskarazko *ondar* (arena), *ondakin* (residuo), *ondolan* (trabajo profundo de agricultura) eta toponimian, *Ondaàoa*, *Ondaàabi*, *Ondartza* eta abar. Euskarazko ordainak izan arren (Laida, Laka, Legendika...) zaila da oso *Ondaàoa*, *Ondaàabi* eta abar deusezte. Zer egin hain ugari diren erdal erroko abizenekin: Eleizalde, Elizagarai, Eleizpuru, Torontegi, Torealdai, Ortuzar, Ortueta, Pagatza, Gaztanbide, Gerexeta, Bolunburu, Bolueta eta abar luzea?

Aranatarren eskola, dena den, saiatu da *toàe*-ren ordez, *aàetxe* edo *aàese* berreskuratzen, *le* edo *la*, *are* edo *ondar* hitzen ordez eta beste neologismo batzuk zabaltzen: *txadon*, *txadokixun*, *txonitz*, *jauretxe*, eta abar. Eta honelako hitz asko onartu ditu dagoeneko herriak. Herriari ez zaio den-dena batera eman behar, apurka-apurka baizik.

Hau hizkuntzaren aintzinako legea da, Horaciok esaten zuen bezala: "muchas veces, caídas en desuso, resucitarán y recobrarán su puesto; y muchas otras en uso, caerán y desaparecerán del lenguaje".

c) Ezjakintasunezko hitzak = Astakeriak. Euskal hitzak izan eta erderazkoa erabiltzea, adibidez *zaldi* erabili beharrean, *kaballue*; *jatsi* esan ordez, *bajatu*; *otsalla* eduki eta *febrerue* esatea... Astakeria horiek onartu egin behar ote ditugu? Ez horixe.

6.- Idazleak herriak erabiltzen dituen egitura posible guztiak bildu behar ditu, aztertu, onartu, garatu eta hobetu, betiere hizkuntzaren beraren arauen barruan. Herriak frantsesa, ingelesa, alemana, katalana eta abar erabili arren, idazleak ezin ditu ontzat eman hizkuntzaren arau gramatikalen aurkakoak baitira eta hizkuntzak badu -ar atzizki propioa horretarako, ez du erderaren laguntzarik behar, ez dezagun, beraz, hizkuntza morroi bihurtu. *Ata Batis* oso herrikoa izango da baina forma euskalduna *Batis* Ata izango da, herriak tradizioan erabili duen ordena hauxe izan da eta: alkate jauna, abade jauna eta ez, jaun alkatea, jaun abadea...

7.- Zuzendu eta sortu ere egin behar dira, herriak erabili ez arren hizkuntzak aurrera egiteko berba berrien beharra du eta hitz berri horiek zergatik ez ditu herriak ikasiko beste hizkuntza batzuetakoak ikasten dituen moduan? Berba berrien sortze-lana hizkuntzaren ezaugarriekin bat egin beharko dute, hizkuntza garatuz eta hobetuz.

5.2.- Herriko lexikoa errespeta dezagun

Beste hizkuntzetatik hartutako maileguak onartzean hiru aukera daude: 1) mugarik gabeko onarpena, 2) erabateko baztertzea, 3) herriaren hizkuntzatik jasotako berbak onartu eta lexikoan jaso. Lehenengo biak alde batera utzi eta hirugarren bideari ekiten diote hizkuntza gehienek baita alemanak eta ingelesak ere.

Ezin dugu onartu herriak erderazko hitzak erabiltzeko duen erraztasuna, euskal hitzak dituztenetan ere erderara jotzen dute "*enseguida dator*", "*derrigor da*", "*beriala dator*", "*nai-ta ezkoa da*"...esan beharrean.

Irtenbide purista da onena, beti euskal errotik eratorritako berbak erabiltzea, alegia. *Limosnia* erabiliko du herriak baina euskara da? *Ukar* da euskara, hau da, *uko*-ar (cosa dada con la mano). Herriari honelako azalpenak emanez gero, oso ondo hartzen ditu. *Dirue* entzun eta zeri lotzen dio euskaldunak burmuinean? Ez al du lotura zuzenagoa *txindi* "txin, txin" txanponak lurrera erortzean egiten duen soinuarekin? *Margo* ez du jendeak ezagutzen baina marguldu bai, margua + uldu edo kendu edo galdu. Beraz, herriak jakingo du *margoa kolorie* dela eta margo hori ezaguna egingo zaio eta bereganatu egingo du.

Beraz, hirugarren bidea ezin da besterik gabe onartu, herriaren ezjakintasunak, idazleen, predikatzaileen eta hizlarien arduragabekeriak euskararen erdal kutsaduraren errudunak dira. Galdetu bestela sermoi hau entzun erdi lotan zegoen entzule hark erderazko "la oración ha de hacerse en comunidad" "komunian egin behar zela oraziñua" entzun zuenean zer ulertu zuen.

Aranatarren eskolak ezin dio uko egin berarekin batera sortutako ideologia nazionalistari. Nazioa arraza da, berezia, ezberdina, banandua eta euskara ere, hizkuntza nazionala, propioa, ezberdina, banandua, berezia eta zenbat eta bereziagoa, orduan eta nazionalagoa.

5.3.- Herriarentzako ez den literatura egitearen kalteak

Orain dela 40 urte euskara Gipuzkoa osoko hizkuntza zen eta Bizkaian, Bilbao eta Enkarterriak kenduta hiribildu eta populazio handiko herrietan ere hitz egiten zen euskaraz. Gaur herri handietatik ia desagertu da euskara (Durango, Gernika, Zornotza, Mungia...) eta Gipuzkoan gauza bera gertatzen ari da Tolosan, Donostian... Uste du Altube jaunak orain dela 40 urte hasi bazen euskalduna irakurtzen eta eman bazitzaion literatura hizkuntza erraz eta atseginean euskara leku horietan gorde egingo zela Pirinioez beste aldean gertatzen den bezala?

Antza denez, Altubek horretan ikusten du euskararen salbazioa Kirikiñoren kasua aipatzen duenean. Kirikiñok, Altuberaren iritziz, herriarentzako literatura egin zuen eta irakurle eta idazle ugari erakarri zituen.

1.- Zoritzarrez esan behar dugu egia dela orain dela 40 urtetik hona ia guztiz desagertu dela euskara biztanleria handiko herrietan. Zeintzuk dira horren arrazoiak? Herriarentzako literatura eza, ez. Erderaz irakurtzeko joera arrazoia izan daiteke baina ez bakarria. Zergatiak beste hauek izan daitezke: aurrerakuntzak ekarri dituen abantailekin batera desabantaila bat ere bada dagoeneko baserri gutxi geratzen direla isolatuta, komunikazioak hobetu egin dira eta horrekin herri bien (euskaldun eta erdaldun) interkomunikazioa errazago gertatzen da bai erdaldunak Euskal Herrira etortzen direlako eta bai euskaldunak ere baserri eta nekazal girotik irten eta hirira (normalean, erdal gunera) joaten direlako. Komunitate linguistiko bien arteko harremanetan aitortu behar da erdara irabazle irteten dela zeren euskaldunak erdaldunekin erderaz egiteko ahalegina egiten du, alderantzizkoa ez da gertatzen ez eta erdalduna euskal gunera pasatzen denean ere. Literatura erraz eta ulergarriak nekez eragin dezake harreman horietan. Literaturak lor lezakeen bakarria euskaldunak beharrezko ikusten duen erdera hori ikastea irmokiago eustea baina ez herri osoak erderaren kontrako jarrera hartu eta euskara defenditzea. Gainera nola lehiatu erderazko egunkariekin? Euskara erraza eta ulergarria duen literaturak ez zuen euskararen atzerakada hau geldiaraziko.

2.- Kirikiñoren kasua. Egia da idazle honek izugarritzko arrakasta lortu zuela garbizale eta ezgarbizaleen artean. Nola lortu zuen? Herriari kontakizun, pasadizo, kontu eta ipuin interesgarriak eskainiz. Herriari zer eta nola idazten zuen gustatu zitzaion. Beste batzuk ere hurbildu zitzaizkion herriari: Batxu gernikarra, G. B. bapore bateko maiordomoa... Baina ken diezaiogun beroarena Altuberen goraiamenari! Kirikiñok beren pertsonaien ahotan herriko hainbat esamolde eta esaera jarri arren, neologismoak ere erabiltzen zituen, izan ere, neologismoak gehien zabaldu zituen idazlea dugu. Berari esker gaur aruntki erabiltzen ditugu neologismo batzuk: *izparringi*, *izparkari*, *olerkari*... Bestela irakurri "Abarrak" lehenengo alearen 10. orrialdeko paragrafo hau: "*Beñola Madrid'eko akeitetxe bateko mai baten inguruban batzen zan ikaslari edo estudiante pilo bat; euren artian lagikari-gayak eta osalari-gayak zirala geyenak, danak vascongaduak, bi edo iru euzkeldun kendu ezker*".

Kirikiñorena aparteko kasua da, ezin da neologismoaren aurkako borrokan edo arkaismoak berpizteko ahaleginaren edo tokian tokiko berben zabalkundearen kontra borrokatzeko eredu moduan erabili. Kirikiñok neologismoa defendatu egin zuen eta horren froga Julio de Urquijo jaunak neologismoen kontrako kritiken aurrean Kirikiñok egin zuen defentsa.

Kirikiñoren mailako idazlea izateko hizkuntza menperatu egin behar da, adierazpenerako zuen gaitasuna izan behar da eta baserriko giroan bizi. Euskaldun berriek ez dute zorte hori izan eta ezin zaie eskatu izan ez dutena, nahikoa egiten dute

3.- *Euskalzal*eren filosofiari dagokionez Altuberen irakurketa okerra argitu behar da, 1897an euskara mordolloak hiru urtetan desagertaraziko zituela esan zenean ez zen esa nahi izan hori, baizik eta hiru urteko lana nahikoa izango zela mordolloak hizkuntza literariotik baztertzeke eta ele garbiak, jatorrak sartu eta arrunt bilakatzeko, bai antzinako berbak berreskuratuz, bai berriak sortuz.

4.- Ez dugu nahi gure lana kritika hutsa izatea, kritika negatiboa esan nahi da. Euskararen beherakada ahozkoan eta batez ere herri handietan aztergai izan beharko luke Euskaltzaindiarentzat eta Eusko Alderdi Jeltzalearentzat, Acción Nacionalista Vasca, batzoki eta menpeko erakundeentzat. Euskararen defentsa eta zabalkundearen aldeko lana egin behar da udalbatzetan, batzokietan,... Ekimen interesgarria izan liteke halako lekuetan euskal testuak ozenki irakurtzea, jendea ez dago ohituta euskaraz irakurtzen baina ezberdina da irakurtzen badiote. Hor ditugu "Euzkadi", "Argia", "Ekin" bezalako publikazio erabilgarriak.

Abertzaletasuna nahikoa ez bada euskara salbatzeko, abertzaletasunetik egiten den lana behintzat sustatu egin beharko litzateke eta elkarteak sortu. Isunak jar litezke erderaz hitz egiteagatik. Zergatik ez? Hori egiten zen euskaraz hitz egiten zelako erdara inposatu nahi zutenean. Edo zigorrak? Mingarriak direla? Min egiten badu, eragina duela esan bahi du. Ideiak ideaia, beti eragiten da jendearen patrikan edo urdailean.

5.4.- Altuberen artikulua VI - VII – VIII. atalei buruz.

Linguista eta gramatika berezitu behar da: Gramatikoak gramatika aztertu egiten du, lexikoa eta ohiko formak eta forma arkaikoak, orokorrak eta partikularrak ikertu, erkatu eta egiaztatu egiten ditu eta hizkuntzaren gramatikarekin bat datozen erabakitzen du. Linguistak ez du azterketa gramatikalik egiten eta askotan hizkuntzatik kanpoko lege biologikoei erreparatzen die.

Altube jauna gaurko hizkuntzaren lexikoaren eta herriko formen berriztapenaren aurka dago. Gramatikoak, hizkuntza maite badu, hizkuntza aztertu eta hobetzen lagunduko du. Hasieran herriak ezin izaten du gramatikoak literaturaren bidez egiten duen berriztapena onartu baina gero argi dago literaturak herriaren hizkuntzan eragin handia duela. Gaztelaniaz ere herriak erabiltzen zituen hainbat hitz literaturaren bidez zuzendu eta forma kultuengatik ordeztu ditu, esaterako: "médula" eta ez "meollo" hitz arrunta, "nervio" eta ez "niervo", fonetikan ere eragin du literaturak eta herriak ikasi zuen "subscriber" esaten eta ez "suscriptor"... Ikasketa eta formaziodun jendeak eragin ikaragarria du jende xumea eta eskolagebarengan, honek harengandik ikasi egiten ditu hitz kultuak eta erabiltzea gustatzen zaio.

Euskaraz, ordea, eragin hori kalterako izan dugu. Herriak predikatzaile ezjakinen eredia jarraiki euskara erderazko hitzez eta egiturez itsusitu du.

Gaitz horren aurka aritzeko asmoa du "escuela renacentista" izenekoak, eskola honen bidez herriari hizkuntza garbia, jaso eskainiko zaio, aintzinako berbak berreskuratuz, tokian tokiko eleak zabalduz edo berriak sortuz hitzen bereizketa semantikoaren beharra dagoenean ez ezik erdarazko jatorria duten ezain egitura edo berba errotik desagertarazteko.

Broussain jaunak zioen moduan, euskara batzea dela eta, euskalkiak sakonki aztertu behar dira eta batek falta duena beste euskalki batetik hartu eta alderantziz, batasun natural eta anaikorra, ez inposatua.

Euskararen arruntkeria ez da beste hizkuntzetakoa bezalakoa, euskaran, zoritxarrez, erdera gehiegi sartzen da.

Zuzentzen diren formek batzuetan aurrera egiten dute, beste batzuetan desagertu egiten dira. Adibidez, aditz guztiak jokatzeko proposatu zen, bokalez zein kontsonantez hasi, eta ez du aurrera egin, kontsonantez hasten ziren aditzetan; bokalez hasten direnetan badoa apurka-apurka sartzen.

Aitea edo atea, amea forma arkaikoak dira, Kapanagak ere erabiltzen zituen D.V.E.F.n. Gauza asko ez dira berriak, berreskuratutakoak baizik. Euskara bertan behera utzita egon da eta eskola honen helburua da, aurkakoak aurkako, hizkuntza garbitzea eta gorestea izaeran eta forman.

Euskarak lehen ere inguruko hizkuntzen eraginez denbora berrietara egokitu eta formak aldatu ditu, Erdi Aroan, adibidez, gizartean errespetuzko tratamenterako "vos" (gaztelaniaz), "vous" (frantsesez) sortu zen, latinak ez zuena, latinean ez zen bereizketarik egiten ez errege, ez aita santua ez inorekin, beti zen "tú". Euskarak izan zuen aldaketa hauze izan zen: *"Las formas plurales correspondientes a zu, quedaron como singulares en el uso, no en la construcción gramatical; y se introdujeron nuevas formas plurales o replurales, por medio del repluralizador e o te, según los dialectos. Así zabilte, que primeramente fue vosotros andais, pasó a ser vos andais, respetuoso singular, y para el plural se introdujo la forma zabilte"*.

Ikusten denez, hizkuntza etengabe aldatu eta egokitu beharra dago aurrera egin nahi badu. Zer arazo dago hizkuntza garbitzeko ahaleginean?

6.- ALTUBE: MÁS SOBRE LA VIDA DEL EUSKERA

Altubek 1936an "La Vida del Euskera" idatzi eta hiru urtera argitaratu zuen Euskera aldizkarian. Altubek *Euzkerea* aldizkarian argitaratu nahi zuen artikulu adizkari horretan agertu baitziren bere hitzaldi haren kontrako iritziak baina aldizkari arduradunek "*Arana - Goiri 'tar euzkel-lanak egin ebazan alde irasi zalako aldizkingi ori*" ukatu egin zioten.

Artikulu honen helburua bere aurkako ideologikoei erantzutea da, batez ere, Luis de Garai, Mibisus eta Nabaàztaàari. Altubek sarreran artikulua hiru zatitan banandu zuen, hiru horiei erantzunez. Guk Lehenengo zatia baino ez dugu lortu: Luis de Garairi emandako erantzuna, hain zuzen ere. Besteak uste dugu gerra zibila zela eta, ezin izango zituela argitaratu.

LEHENENGO ATALA: Euskaralogia eta hizkuntzalaritza.

I.- Zientzia linguistikoaren prestigioa.

Garaik ez ditu linguistikaren printzipioak aintzat hartzen eta gainera zientzia batez trufatzera ausartu egiten da. Hizkuntzalaritza zientzia da eta merezi du hemen beronen defentsa bat egitea. Lehenengo eta behin esan behar da euskalzaileen artean linguistikaren uste okerra dagoela, uste da linguista dela hizkuntza askoren jabe dena, baina linguistikaren helburua ez da hizkuntzen ezagutza, hizkuntzen ezagutza da, hain zuzen, hizkuntzen lege orokorrak aztertzeko bitartekoa.

Hizkuntzen funtzionamendurako legeek eman diezagukete argi piska bat gure euskararen arazoa aztertzean eta irtenbideak bilatzean. Beraz, linguistika kontuan hartu beharko litzateke euskarari laguntzeko sinesmen oker eta kaltegarriei eutsi beharrean.

II.- Linguistika soilik?

Hizkuntzalaritzak, jakina, hizkuntzen funtzionamendu orokorreari buruzko informazioa bildu eta aztertzen du, hau da, teoria. Argi dago hizkuntzalariek soilik ez diezaioketela euskara ez inongo hizkuntzaren atzerakadari aurre egin baina agian printzipio linguistiko orokorrak kontuan hartzeak ekidin ditzake orain arte euskararekin egin diren hutsegiteak. Arrazoi du linguistika hutsak ezin dezakeela arazoa konpondu, linguista eta hizkuntza ondo ezagutzen duenaren arteko lana da eta. Nola sendatuko du medikuak gaitza gaixoa aztertu ezean? Ezinezkoa da edozein linguistak onena izanda ere, euskara ezagutu ezean, euskararen arazoa konpontzea. Hortaz, linguistika kontuan hartu behar da baina ez da arazo honetan behar den disziplina bakarra. Hizkuntza ezagutu arren ere, linguista teorikoa da eta hizkuntzak praktika behar du, idazleek oso lan garrantzitsua dute honetan, berauek baitira, azken finean, hizkuntza landu, hobetu, aberastu egiten dutenak baina betiere linguistak teorian eskaintzen digun hizkuntzen legeen ezagutza orokorra ahaztu gabe.

III.- Linguistikak ez du balio euskararen kasuan?

Garaik linguistika euskararen kasuan ez dela aplikagarria argudiatzen du zientzia horri muzin egiteko baina badu Garaik kontraesana, linguistikak hizkuntzen azterketa konparatiboa egin ostean hizkuntza Europako beste hizkuntzekin zerikusirik ez duela eta hizkuntza isolatua dela esaten duenean gogoko du eta aintzat hartzen du. Isolatua izateak, diferentea, hemengoei hizkuntza horrekin nahi dutena egiteko ahalmena ematen diete, nolabait. Isolatua izatea dute aitzakia hizkuntzalaritzaren teoriak arbuiaitzeko. Gogoko dute euskalzaleek euskarari berezitasuna ematen dion linguistika baina ez dituzte gogoko hizkuntzen pobretzea, atzerakada, galtzea, hizkuntza batzuek beste batzuk ordezteak eta horrelako fenomeno linguistikoak aztertu eta irtenbidea emateko eskaintzen dituen neurriak. Hizkuntzalaritza zientzia aintzat hartu behar da: bai ala ez? Filologia ezberdinak egon daitezke: filologia latina, filologia ingelesa, euskal filologia.. Hizkuntza ezberdinen azterketa berezia. Hizkuntzalaritza orokorra da, bat bakarra dago, denentzat baliagarria dena.

IV.- Euskaralogia Linguistikaren barruan

Linguistikaren barruan hizkuntza ezberdinen azterketa bereziak egon daitezke, euskaralogia (bereziki euskara aztertzen duena) izango litzateke horietako bat.

Hizkuntzalari ospetsuak daude euskara ezagutzen ez dutenak eta euskal idazleak daude linguistikaren oinarriko printzipioak ezagutzen ez dituztenak. Batzuen eta besteen ekarpenek izugarriko garrantzia dute euskararen egoerari irtenbidea emateko. *"El filólogo debe conocer (dice A. Hovelacque) al menos de una manera general, los resultados adquiridos por la lingüística. Si no sabe nada del la lengua en sí misma, de ese agente el más considerable del pensamiento, si ignora su estructura, y los elementos que la componen, ¿cómo podrá discernir con perfección sobre los frutos de ese agente?"*

BIGARREN ATALA: Neologismoak eta jatorri exotikodun hitzak

I.- Jatorri arrotzeko hitzen zilegitasuna

Hizkuntzalaritzak argi uzten du atzerriko berbak hartzearen fenomeno naturala dela edozein hizkuntzatan. Garairen ustez eztabaidagarria da euskaran kanpoko hitzak hartu behar direnik eta aspalditik sartutako hitzak ere behin-behinekotzat hartu behar direla uste du beste batzuk (berriak edo zaharrak) sartu arte. Zein arrazoi zientifiko dago euskaran halako mekanismo garbitzaileei ekiteko, beste inongo hizkuntzatan ezagutzen ez den fenomeno eznatural horiek abian jartzeko?

Garbizaletasuna hain kutuna duten idazle eta euskalzaleek, eguneroko euren elkarrizketak erderaz izaten dituzten horiek, zer esan behar diete

Markina, Tolosa ... eta hainbat herri euskaldunetako bizilagunei beren eguneroko euskara naturalaz?

II.- Neologismoak sortzeko hizkuntzen gaitasuna.

Garai ados dago hizkuntza gehienek hitz arrotzak onartzen dituztela baina soilik ordezkorik ez dutenetan. Ikus dezagun gure inguruko hizkuntzek nola jokatu duten ea Garai zuzen ala oker dabilen.

Ingelesaren kasuan, Meilletek dio "*el inglés al antiguo germánico ha añadido, y en parte substituído, un vocabulario francés*". Zer dela eta onartzen ditu ingelesak galizismoak? Latinera eta grekora ere jotzen du eta ingelesak iturri ezberdinak ditu hitzak sortu eta ordezeko: edozein hizkuntzak bezala, hitz konposatuen eta eratorrien bidez; hizkuntza zaharretara joz (germanikoa, anglo-sajoia, sajoia...).

Alemanak ez du ingelesak beste hitz erromaniko hartu baina hitz exotiko anitz onartu ditu. Sanders-en ustez ehun mila baino gehiago, Heysse-n ustez, ehun eta hogeita bost mila hitz arrotz.

Egia da alemana beti kezkatu duela hiztegiaren garbitasunak baina ez dira euskalzaleek proposatu duten sarraski lexikala egitera heldu. Egin da saioaren bat baina porrota izan da.

Errumanierak sustrai erromanikoa izan arren, eslavotik eta grekotik hartu ditu hitzak

Polonierak hitz germanikoak onartu ditu.

Espainolak ere kanpoko sustrai ezberdinetako hitzak erabiltzen ditu bai arabieratik hartuak, germanikoak, euskal jatorrikoak ere bai.

Grekoak turkierako hitzak ditu, baita Egipto eta Caldeako hizkuntza zaharretakoak ere.

Berba arrotzak onartzeak ez du ezer txarrik, kontrakoa "*El pueblo que exporta voces a otro da sin duda muestra de su cultura... pero el que las recibe revela ser un pueblo normalmente civilizado...*"

III.- Hizkuntzen arteko hitzen mailegutza.

Behin eta berriro azpimarratu dugu hizkuntzen arteko hitzen mailegutza orokorra dela gaurko hizkuntzetan. Norbaitek esan lezake indoeuropeoaren sustrai bereko hizkuntzen arteko hitz trukea zilegi dela baina euskara sustrai ezagunik gabekoa denez, ez litzatekeela hain prozesu naturala. Ahaide ezagunik ez duela eta, ez ote du euskarak hiztegia aberasteko eta modernitatera egokitzeko eskubiderik?

Indoeuropeoa deituriko hizkuntzen ondorengo gaurko hizkuntzek ez dute jatorrizkoarekin antz handiegirik, hizkuntzak aldaketa handiak jasan baitituzte. Gainera, indoeuropeoak adar ezberdinak ditu: germanikoa, erromanikoa... eta adar ezberdinetako hizkuntzen artean ere hitz mailegutza egiten da. Sustrai berekoak izan edo ez, ez dago euskarari beste hizkuntzetako prozesu aberasgarri eta aurrerakoi horri eragozpenik jartzeko arrazoirik.

IV.- *Noiz eta nola onartu behar dira hitz arrotzak?*

Hitz arrotzak onartzea zilegi dela argi geratu da baina zenbaterainoko mailegutza? Mugak jarri behar dira? Gaia konplexua da oso baina argi eduki behar duguna da behintzat hizkuntza gaixoari, euskarari, berez pobretuta dagoen hizkuntzari, inolako neurririk gabe berezkozat hartu dituen kanpoko hitzak kentzea hizkuntza hiltzea izan daiteke. *"Es como practicar agotadoras sangrías en un cuerpo enfermo de anemia"*.

Hitz arrotzek hizkuntzari bizia eman liezaiokete eta ez kendu, batzuek uste dutenaren kontrakoa.

Hitz bat onartzean edo ez onartzean egon behar duen eztabaidak guztiz objetiboa behar du izan, hizkuntzalaritza oinarri duen prestakuntza teknikoa izan behar da onartzen den hitza ez dadin gustu pertsonaletan oinarritutako aukera baten emaitza izan.

Zein berba onartu beharko litzateke inolako zalantzarik gabe? Euskaldunen eguneroko bizimoduaren lexiko normalera egokitu diren hitzak, bereziki, euskara ondoen hitz egiten den herri edo eskualdeetakoak.

Américo Castrok dio garrantzitsuena dela euskarari etorkizuna ematea eta hitz arrotzak izateak ez duela kezkatzeko arrazoia izan behar. *"Hay que proceder con un sentido de las proporciones, y no intentar aplicar al vasco - la mayoría de cuyos hablantes no lee ni escribe en vascuence - métodos exageradamente puristas, imitando lo que hacen o han hecho países en un momento de apogeo literario y cultural"*. Euskararekin egiten dena gaurko euskara oinarri hartuta egin behar da, gaur egun hitz egiten den euskara oinarri izanda. Ez da euskararen hiztegian sekulako inausketa egitea komeni, zuhaitza adar gabe gera daiteke eta. *Eleiza* euskara da, hala erabiltzen du euskaldunak, jatorri exotikoa duela?... hori filologoen ardura da, ez hiztunarena.

Vendryes bretoiari buruzko garbizaletasunaz aritzean dio: *"... ensayan a constituir en Bretaña una lengua de cultura y de ciencia, conviene ponerlos en guardia contra un exceso de nacionalismo lingüístico..."*

H. Gavelek euskarari buruzko hitzaldian euskararen mehatxurik handiena *"el purismo insensato en el vocabulario"* dela esan zuen.

P. Laffiten ustez: *"Berehala gogorat heldu zaitzu eskuara zaindu naiz hiltzen daukutenen eskuara grabi-garbi-garbia"*.

Campionek uste zuen "baseàitar eta bordariek aditzeko gizaz" egin behar dituztela idazleek lanak.

Jaurtakoi izeneko idazleak Euzkadi egunkarian (1935-VI-16) Irazoiz Aitaren *Yesu-Kristo Gure Yaunaren Bizia*" lanaren gainean haxe idatzi zuen: "Erdel kutsua duten zenbait itz badakarzki baina ez du oàengatik erdel kutsurik liburu onek: euskal-aàobiko aài zaàak, gure eàiak urteen buruan legundutakoak baitira guziak. Eta, zergatik bear ez ditugu oiek erabili, gure ezpanetan ez ezik, gure idaztietan ere..? Gai ontaz norberak uste lezake dagokion eran, baña ez dezagun gure izkuntza lotu, gañerako eàiak berena ez bezela".

Larrasquet apaizak zubereraren berezitasunari eskainitako azken liburuan, "Le Basque Souletin Nord-Oriental" izenekoan, horrela adierazi zuen: "Pensamos nosotros, con todos los lingüistas modernos, que solo el uso, el uso espontáneo decide sobre la vida o la muerte de las palabras. Hemos pensado situarnos mejor en el espíritu de los métodos de la lingüística moderna, representando nuestra variedad dialectal tal cual es y no tal cual fue o pudiera ser tal, en definitiva, cual la quisiéramos".

Aurreko hizkuntzalari eta idazleen iritziak aintzat hartzekoak dira euskararen hil ala biziko egoerari, hiztegiaren mugarik gabeko garbizaletasuna eta beharrizanik gabeko gramatikaren aldaketak barik, beste neurri batzuk eskaintzeko.

V. *Neologismo morfologikoak ez dira bideragarriak.*

Gure hizkuntzaren berriztapena ez da hiztegian geratzen, alderdi morfologikoa ere euskalzaleei ez zaie nahiko luketen bezain lojikoa iruditzen eta aldatu beharra ikusi dute. Honako aldaketak proposatzen dituzte:

Herriaren formak	Proposatutakoak
Goiko elizan	Goiko elizean
Gaurko egunean	Gaurko egunan
Emen datoz aiztak	Emen datoz aizteak
Amak aitari	Amak ateari
Jabier ek esan deust	Jabier ak esan deust
Ekarri neban	Ekarri leudan
Neu be banoa	Neu be bai -noa

Zer dela eta, ordea, Zuberoan hasi eta Bizkairaino komunean dituzten formak aldatu? Arrazoi bakarra, antza denez, lojika eza. Baina hizkuntza naturalek ba al dute lojekarik? Zenbat irregularitasun daude espainolean aditzari dagokionean, adibidez? Herriak ez du inolako arazorik irregularitasunez jabetzeko, ahoz ahoko transmisio naturalean lojikkak ez du garrantzirik, entzuten dena ikasi egiten da.

Forma batzuen berriztapena, agi denez, forma zaharren berreskurapena omen da baina ezer gutxi dago dokumentatua forma zahar horien gainean, "zuek" forma berria sortzea izango litzateke dokumentatua dagoena, adibidez. Konforme, "zuek" forma berria da, kendu egin behar al dugu orain herriak normal erabiltzen duenean?

Espainolez hitz egiten den Amerikan, Argentinan, esaterako, ez eskolek ez idazleek, ez kolonia espainol osoak lortu dute "vos" eta "ustedes" erabili beharrean, herriak "tú" eta "vosotros/as" erabiltzea.

Honelako eta beste saio batzuen porotak erakutsi beharko lieke euskalzaleei eta beste neurri praktikoago batzuei ekin beharko liekete baina horretarako linguistikaren ezagutzak izan behar, bestela nola jakin han eta hemengo hizkuntzetan gertatzen diren fenomenoen berri?

HIRUGARREN ATALA: Garairen irakurketa okerrak

Hirugarren atal honetan Altubek Garaik gaizki ulertutako hiru puntu argitu nahi ditu: lehenengo eta behin, euskararen atzerakadaren arrazoiak badirela sozialak eta politikoak Garaik uste duen legez, eta gainera, aspalditik datozkigunak. Bigarrenik, atzerakada horren erru zati bat euskalzaleek dutela, ez osoa, noski. Eta azkenik, Altubek ez dio abertzaletasunari euskara bultzatzean duen eragina ukatzen.

LAUGARREN ATALA: Euskararen atzerakada eta aurrerakadak. Euskal berpizkundea.

1.- Azken 40 urteotako euskararen galerak

Altube oso kezkatuta agertzen da azken 40 urteotan, batez ere, erdara nola zabaldu den Irun, Pasaia, Donostia, Tolosa, Zumarraga, Durango, Amorebieta, Gernika, Galdakao eta abar... bezalako herrietan. Garaik, ordea, aurrerakada nabarmena ikusten du publikazioetan, inoiz baino gehiago idazten dela euskararen aurrerakadaren seinale dela argudiatuz.

Altubek ez du uste gehiago idazteak euskara salbatuko duenik, "La Vida del Euskera"-n adierazi zuen moduan, hizkuntza bat berreskuratzeko hiztun ugari behar da. Euskalguneak (Bermeo, Ondarroa, Lekeitio, Arrasate, Zarautz, Elgoibar, Zumaia, Azkoitia, Azpeitia, Deba ...) babestu egin behar dira horiek baitira euskararen urak zabalduko badira, zabalkunde horren iturri.

Zer egin daiteke euskalgune horiek babesteko? Besteak beste, egin daitekeena da euskal haurtzaindegiak abian jarri, irakasle gaituak kontratatu (eta ez, euskara azterketa "gainditu" zaienak), eta euskal idazleek bereziki lortu beharko lukete erdaraz irakurtzen duten euskaldun jator horiek euskaraz idatzitako literaturara erakartzea euskara hurbilean (eta ez artifizialean) eta

errazean idatziz. Izan ere, kezkatzekoa da, euskaraz asko idatzi arren, Eibar bezalako herri euskaldunean egunero erdarazko 2.400 egunkari sartzea.

II.- Muturreko garbizaletasunak ez du euskara "hiltzen" baina lanketa literarioaren eraginkortasuna deuseztu egiten du.

Euskal idazleak ez dira euskara hiltzearen errudunak baina euskarari gaixoaldian ez diote erremedio onik ematen.

Euskaraz asko idazten da, lehen baino hobeto? Hobeto idaztea bada, herriak erabiltzen dituen berbak ezezagunengatik ordeztea eta nonahi akats gramatikalak egitea...?

Garbizaleek hiztegiaren dute obsesio nagusia, eta hizkuntzaren arima den gramatika ahaztu egiten dute. Lehenengo zaindu behar dena da zuzentasun gramatikala eta gero hiztegiaren aberastasuna (gaur eguneko berba arruntak).

Garbizaleen euskara akastuna baina garbia baserritarren "euskara motrolloa" baino hobea ote?

III.- Bidegabekeria da euskal berpizkundearen iraintzaileak garela esatea.

Altubek atal honetan argi utzi nahi du ez duela zer esanik euskal berpizkundearen eragin baikorraren aurka. Izan ere, Sabino Aranek sortutako mugimenduak adar ezberdinen ikerketa eta azterketa bultzatu du (historia, artea, literatura, etnografia...). Altubek dio adar ezberdin horien artean euskaralogia izan dela kritikatu duen bakarra. Berak hala adierazi zuen: "*Si en todos los demás problemas de la vida, los vascos sabemos utilizar los medios que pone en nuestras manos el progreso de las ciencias, no hacemos una excepción con el del euskera*".

IV.- Abertzaletasuna oso garrantzitsua da euskara biziko bada, baina hil eta gero, nekez berpiztuko du.

Ukaezina da euskararen arazoan arrazoi politikoak eta sozialak daudela baita abertzaletasunak erdararen kontrako borrokan eragin izugarria izan dezakeela baina hortik abertzaletasunarekin soilik, edo norbaitek esan zuen moduan, askatasunarekin, gramatika eta hiztegiarekin soilik euskara salbatuko dela esatera alde handia dago. Abertzaletasuna piztu artean behinena euskalguneak babestea, zaintzea eta gordetzea da. Euskararen sua piztuta gorde behar da, gero errautsetatik zer aterako gelditu gabe.

V.- Eskolaren eta familiaren eragina hizkuntzen biziraupenean.

Familian euskaraz hitz egitea funtsezkoa da euskararen transmisiorako eta bere biziraupenerako, ahoz ahoko transmisioan baitago hizkuntzaren etorkizuna.

Bizirik dagoen hizkuntza batek, literatura eta gramatika izan ez arren, sortu egin ditzake baina liburuetan soilik bizi den hizkuntza ezin da hiztunen ahotan jarri.

Bi modu daude hizkuntzak ikasteko: ahozko erabilera bitarteko naturala, hizkuntzen transmisiorako eta biziraupenerako beharrezkoa dena, eta bitarteko artifiziala, eskolak eta literaturak ematen dutena.

Bi modu horien artean ez ote da naturala egokiago?

Garaik dio gaur egun bizitza familiarrak ez duela pisu handirik baina zalantzarik gabe esan daiteke euskara jarriotasunez dakiten %99k etxean ikasi dutela. Beraz, familiak pisu galanta du euskararen etorkizunean.

Familian, dena den, ez du balio gurasoek seme-alabei euskaraz egiteak soilik familia osoaren hizkuntzak izan behar du benetan aipatutako pisu hori eduki dezan.

Souberbiellen hitzak oso adierazgarriak dira dagokigun gaian: *"El Canadá francés guarda su lengua enfrente del Gobierno británico: los artifices de la obra son el cura y la madre"*.

Felix de Zubizarretak eskolako euskararen irakaskuntzaren emaitza ezkorren inguruan dio umearen inguruko erdal eragina baino kaltegarriagoa dela guraso euskaldunek egiten duen euskararen bazterketa. "Umeen zentzuna, etxean entzuna" dio esaera zahar batek, etxean erdara garrantzitsuago ikusten badute, hori da umeei jasoko dutena. Euskarari etorkizuna eman nahi badiogu, familia euskaldunak lortu behar ditugu, euskara hutsez arituko diren familiak.

Laburbiltzeko, ahozko erabilera eta familia bidezko transmisioa hizkuntza bizien adierazgarri dira. Hizkuntzaren lanketa literarioa edo irakaskuntza bigarren mailako egiteokak dira baina gure hizkuntzaren kasuan, ezinbestekoakj, herriak dituen beharizan kulturalengatik, alde batetik eta oso landuta dauden hizkuntzen aurka borrokatu behar duelako, bestetik.

Hizkuntza biziko bada, arlo biak landu behar ditugu: bai ahozko eta familia arteko hizkuntza eta bai hizkuntza literarioa edo irakaskuntza.

BOSGARREN ATALA: Hiztegiaren "aberastasuna" eta "garbitasuna" – Hitzen inportazio "normala" eta "anormala" - Lexiko "arrunta" eta "teknikoa".

I.- Erabiltzen diren hitz guztiak onartuta ere oraindik hiztegian hutsune handiak geratzen dira. Egoera honetan gabezia honi aurre egin beharko, eta ez, hitzak baztertuz.

Euskal idazleek euskararen forma oker ugari aurkitu dituzte (*neukan, neroian, gaurko egunean, amak aitari, kolore, pixu, zero, madarikatu, kanpai, organu, tren, laranja, limoi...*). Zerrenda oker amaigabe honi esker euskarak bizirik dirau oraindik hainbat tokitan. Herriak hain sartuak, hain errotuak dituen forma oker ezinbesteko hauek baztertzea, bestalde, lantegi galanta da, belaunaldi askoren lana baita hitz batzuk baztertu eta beste berri batzuk erabiltzea.

Forma oker horiek baztertuz esan daiteke euskara bera ere desagertu egin litekeela, adierazpiderako bitartekorik gabe geratuko litzatekeelako. Nahikoa pobretuta dugu euskara hitz horiek onartuta ere. Gure erronkak dugun hiztegia aberastea eta zabaltzea izan behar du.

Gaur egun hizkuntza kultuen mailara heldu nahi badugu, euskarak ezinbesteko du hiztegia modernitatera egokitzea, egokitze horretan neologismoak edo arkaismoak zabaltzea zilegi izan daiteke baina egunerokotasunean herriak behar dituen tresna linguistikoak kentzea akats izugarria da.

Jakina hitzak sortu beharra dagoela, nola esan bestela erderazko "*accidente, acoplar, absoluto, verificar, estar al día, trabajar a semana reducida...*" ? Hor dago beharrezko eta premiazko lana, ez dauden hitzak sortzean eta herriari ezagutaraztean.

Hiztegia egitea errazena da, zailena herrian hiztegi hori erabiltzea lortzea da, gauza bat da hiri handi baten planoak egitea eta beste bat hiri hori eraikitzea.

Euskara ez dago hitzak galtzeko moduko egoeran, inguruan dituen hizkuntzen potentzial linguistikoaren kontra aritu behar badu, arma linguistiko guztiak (berriak, zaharrak, atzerrikoak...) izan beharko ditu.

II.- Inportazio lexikografiko "normalak" eta "anormalak". "Anormalak" dira garbitu beharrekoak.

Bi ezaugarri ditu hitzen inportazioak:

- a) Normala: aurrerakuntza kulturalak eta komertzialak ekarri duen interkomunikazioak hizkuntzen arteko inportazioak sortu ditu. Inportazio horiek astiro-astiro sartzen dira.
- b) Anormala: Hizkuntza ersotzaileari ematen dioten babes ofiziala dela eta, elebitasunean bizi behar duten hizkuntzetan gertatzen den inportazioa.

Hizkuntza guztietan gertatzen den inportazio normalak ez luke euskalzaleen ardura izan behar, prozesu normalizat jo beharko litzateke.

Herriak poliki-poliki onartu eta instintiboki erabiltzen dituen hitz horiek ordezteko oso zaila da eta porrota izateko arrisku osoa du.

Euskarak dituen desabantaila guztiekin nahikoa du bigarren inportazio bideak ezartzen dizkion hitzei erantzutearekin. Bigarren motako inportazioa, "anormala" deritzoguna, izan beharko litzateke euskalzaleen ardura. Americo Castrok esan zuen moduan "etorkizunari begira, ez iraganari", hots, dagoena dagoela (herri euskaldunenetan oso finkatuta dauden hitzak) eta beharizan berriei erantzun.

III.- Zer da hiztegi ulerterra?

Euskal idazleek hiztegi ulerterra erabili behar dutela diogunean herriak berezko duen hiztegia erabili behar duela esan nahi dugu, herriari hurbila eta ulergarria egiten zaiona.

Baserritar batek, euskaraz irakurtzea kostatzen zaiona kostata, ipuin bat hartu eta hau irakurtzen badu "*Ondi nagosiyen jaupa deuna esateko gabeukiya jó dau gabeukatzak*" oso erreakzio normala izango litzateke, guztiz etsita, ipuin hori itxi eta erderaz ulergarriago egiten zaion egunkaria irakurtzea. Beste hau irakurriko balu, ostera, "*Altara nagosiyen meza santua esateko ordua jó dau erlojuak...*" baserritarrak astiro-astiro irakurri ondoren, ulertu ez ezik bere iganderoko meza ere ekarriko lioke gogora, seguraski; ulergarria ez ezik, gaia hurbila ere egingo zaio.

Egia da idazten den guztiak ez duela denentzat ulergarria izan behar, gai espezializatuak direnean hiztegia ulergaitzagoa izango da, jakina. Baina herri xumeari zuzenduta dauden idaztietan hiztegia zaindu egin beharko lukete idazleek. Idazleak irakurlera egokitu behar du eta ez, alderantziz, irakurlea idazlearen gustuetara. Literatura erakargarria egin nahi bada, irakurlea bera konkistatu behar da, bere gustuko gaiak eta berak egunero erabiltzen duen hizkerari hurbilduta idaztea.

IV.- *Idea berriak adierazteko neologismoak edo arkaismoak erabiltzea hiztegia aberastea da; herriaren hizkeran errotuta dauden hitzak ordezteko erabiltzea hizkuntzari bizitasuna eta adierazkortasuna murriztea da.*

Garairen ustez, neologismoak edo arkaismoak erabiltzeko bi joera daude: "*la primera, más amplia y reformadora, cuando se trata de hacer pura literatura que tiende a consagrar el euskera como idioma de universalidad. La otra tendencia, más moderada, cuando se escribe de conceptos propios de la cultura popular*".

Aurreko paragrafoak zentzuzkoa dirudien arren, hitz bakar batek, adjektibo batek ematen digu, ordea, hizpidea. Garaik "reformadora" aipatzen duenean, horren sakonean euskalzaleen pentsaera okerraren muina dago.

Herriaren hizkerari zor zaion errespetuak ez du esan nahi hizkera hori literaturaren bidez gainditu behar ez denik ez eta gainditze horrek hiztegia berriztatu behar denik ere. Alegia, literaturak, jasoena izanda ere, ez du lexikoa berriztatu edo "erreformatu" behar, aberastu, baizik.

Literatura jasoenak ere ez du desegokitzat jotzen "eleiza, meza, ordu, aspotolu..." eta beste berri batzuegatik ordeztzen. Literaturak egiten duena da, hitz horiek baztertu gabe, sinonimoak, irudiak eta metaforak erabili eta hori da literaturaren funtzioa, hain zuzen ere.

Bereiz ditzagun neologismoak: batzuek herriak erabiltzen ez dituen kontzeptuak adierazten dituzte, beste batzuek herriak erabiltzen dituen kontzeptuak. Lehenengoek hiztegia aberastu egiten dute; besteek, ordea, zilegizko formak ordeztzen dituzte.

Neologismoa baliagarria da adierazpiderako elementu berria ekartzen duenean. Beraz, ez ditzagun indarrak alferrik galdu dagoeneko ditugun hitzak ordeztzen, beharizan berriei erantzuna ematen baizik.

SEIGARREN ATALA: Euskal literatura eta herri euskalduna – "Euskalzale", "Kirikiño" ...

I.- Ez da nahikoa euskal idazle gutxi batzuek herriaren euskara erabiltzea uxatutako irakurleak erakartzeko.

Egunkarietan oso gutxi idazten da euskara erraz eta argian, eta lehenetasuna ematen zaie, argi eta garbi, egunkarian eskaintzen zaien tokiagatik euskara "garbian" idatzitakoei. Irakurleak horiek uxatuta, seguraski ez die besteei erreparatzen eta betikora jotzen du irakurleak, errazenera, erderara.

II.- EUSKALZALE aldizkariak ez zuen "euskara motrolloa" maite, baina maite izan bazuen ere, egoera hartan zaila zuen arrakasta lortzea.

"¿qué sucedió con las revistas, como Euskalzale, tan amantes del euzkera motrollo y de fácil lectura?" L. de Garaik egindako galdera honi erantzunez esan behar da lehenengo eta behin, Euskalzale aldizkariak gogokoago zuela euskara garbia, euskara erraza baino, artikulu asko eskaini zion gai honi eta beti "euskara logikoa"ren alde egiten zuen. Bigarrenik, Euskalzalek ez zuen arrakastarik izan, batez ere, ez zuelako erakunde politiko eta kulturalen aldetik babesik jaso.

Argi utzi behar da euskal idazleen kanpaina garbizaleak euskarari mesederik egin ez dion arren, ezin dela esan euskararen atzerakadaren arrazoi bakarra denik; dakigunez, arrazoi politiko eta sozialak ere hor daude. Orobat, euskara errazean egindako literaturak soilik ez du euskararen aurrerakada lortuko, hizkuntzalaritzaren ezagutzak kontuan hartzeak soilik egingo ez duen

moduan. Halere, elementu garrantzitsuak dira, besteak beste, euskararen egoerari konponbidea emateko orduan.

III.- Zergatik ez dute arrakastarik Kirikiñok euskara errazean idatzitako liburuek?

Egia da Kirikiñoren "Bigaàen Abaàak" arrakastarik ez izatearen arrazoia jendeak euskaraz irakurtzeko zaletasunik ez duela izatea. Sorgin gurpila da: euskaldunak ez du zaletasunik, zaletasunik ez duenez ez da herri xumea erakartzeko interesik eta erakartzeko ahaleginik ezean, irakurleak zaletasunik gabe jarraitzen du.

Euskal irakurleak bi taldetan bana ditzakegu: talde txiki bat baina baliagarria, euskara ikasten dutenena; eta bestea, handia, euskaraz jariotasunez hitz egiten duena baina euskararekiko maitasun ahula duena.

Beste hizkuntza batzuetan, ikasleak daude (idazleak eta irakurle amorratuena) eta lehen aipatutako talde handi horretan ere irakurle garrantzitsuak daude.

Esan daiteke euskarari, zoritxarrez, bigarren talde horretako irakurlerik ez dagoela edo oso gutxi daudela. Irakurle gehienak idazleak dira, edo euskal ikasleak, abertzaletasunak, zaletasunak edo beste kasu batzuetan, lanak eraginda.

Ez da harrizkoa Kirikiño ez beste inoren lan errazek arrakastarik ez izatea, aurreko paragrafoko irakurleen gustuak euskara garbiaren ildotikoak izango baitira. "Euskara motolloak", gainera ez du prestigiorik ez euskara ikasten dutenen artean, ezta baserritar euskaldunen artean ere.

IV.- KIRIKIÑOren zentzu praktikoak bere zaletasun garbizalea gailendu zuen. Ez da "motolloa" KIRIKIÑOOk erabiltzen duen euskara.

"Kirikiño fue uno de los más puristas que han existido"- dio Garaik. Baliteke, Kirikiño bizi zen garaiko giroak eraginda euskara garbiaren aldeko agertzea zenbaitetan, baina herriaren hizkera ere gogoko zuela erakutsi zuen hainbat ipuin eta artikulutan. Ezin da ukatu neologismoak ere erabiltzen zituela tarteka - marteka betiere oreka baten barruan. Hitz arrotzak erabiltzen bazituen ere, esan behar da ezin dela erabiltzen duen euskara "motollo"tzat hartu, maisuki islatu baitzuen herriaren hizkera bizia.

ZAZPIGARREN ATALA: Neologismoen eta herriaren hitzen zabalkundea, adierazkortasuna eta beste alderdi batzuk.

I.- Neologismoen zabalkunde erlatiboa.

Garairen ustez, herriak pilo bat neologismo (cientos de neologismos) naturalki erabiltzen ditu beste hitz arrotz batzuk baztertuz.

A ze hiperbolea! Neologismoak ikasi eta hitz arrotzak baztertu dituztenak gutxi dira (abertzale sutsuak), salbuespena dira. Garaik feria edo azoka batera joan eta bertan biltzen diren han hemengo baserritarrei (herriari) entzun besterik ez du, ikusteko zenbat neologismo (batzoki hitzaz gain, eta hau objektu berria izendatzeko erabili zelako daki ondo herriak) esaten dituzten eta zenbat hitz arrotz baztertu dituzten.

II.- Hitzzen ezagutza intelektiboa eta instintiboa edo barneko ezagutzaren arteko aldea.

Garai oso baikor ageri da herriak neologismoak jaso eta barra-barra erabiltzen dituela esaten duenean. Errealitatea, ordea, bestelakoa da.

Arrazoi objektiboak daude jendeak neologismoak asimilatzeko duen zailtasuna azaltzeko. Herritarrak "diru", "eleiza"... entzun du beti eta hala datorkio ahora instintiboki, berba horiek entzun eta esatean burmuinean objektuarekin, errealitate fisikoarekin lotzen ditu. Orain garbizaleek "txindi", "txadon".. eta abar proposatzen dituzte, zer egingo du euskaldunak berba horiekin, kosta egingo zaio berba horietaz jabetzea; burmuinean egin behar duen lotura-prozesua izango da "txindi= diru". Beharrezkoa al da ordezteko ahalegin hori eskatzea? Ez al da probetxugarriagoa ahaleginok objektu berriak izendatzeko sortuko diren hitzak ikasteko egitea?

Idazteko orduan errazagoa da lexiko garbian idaztea baina mintzatzean ez da batere erraza. Horren adibide argia dugu *Giza-Soña*-ren egilea, ez dago lexiko garbia hobeto menperatzen duenik, baina idatziz; hitz egin behar duenean, berriz, bat-batekotasunari aurre egin behar eta bitartekorik ez.

III.- Erderazko hitzetatik eratorririko hitzak neologismoen bidez itzultzeko zailtasuna.

Erderazko jatorria duten hitz guztiak ezabatu egin behar direla diote euskalzaleek. Ikusi dugunez, zaila da herriarentzat duena ordezteka, horretarako denbora behar.

Baina denbora ez da arazo bakarra hemen. Herriak hitz horiek hain bereganatu ditu ezen hitz horietatik esanahi bereziak, erderak ez dituenak sortu ditu.

Zer egin behar da erderatik hartutako hitz horietatik sortu diren hainbat hitz eratorriekin? Horiek ere ordeztu egin behar dira? Ez da hain sinplea, segidan ikusiko ditugun adibideek erakusten digutenez:

Erderazko hitza dugu **kate**, **katea** (cadena), hitz horrek eman ditu: **kateaztatu**, **katigatu**, **Narkate**, **Arakate**... Hitz horren ordezkoa **Estuntza** proposatzen dute garbizaleek, beraz, kate hori duten hitzetan ere ordeztu egin behar al da? **Estunzaztatu**, **estuntzatu**... Ez da batere erraza hori ahozkoan mekanikoki egitea. Are gutxiago **katigatu** hitzak jasan duen eboluzio semantikoa adierazteko, katigatu ez da bakarrik "encadenar", **estuntzatu** izan litekeen moduan, **katigatu** "enredar" zentzuan ere erabiltzen da: "Oàaziya ulietan katigatu". Balio digu esanahi hau ordezteko "**estuntzatu**" horrek?

Bandera berbak ere baditu ordezkoak: *ikuàin* eta *guda-zamau*. Herriak "Ori, neska bandera ori!" (*¡Esa chica atevida, poco recatada...!*) esaten duenean "neska ikuàin hori!" esan behar al du?

IV.- *Inportatutako hitzak sinonimo diren neologismo zabalduekin batera erabil daitezke.*

Neologismoa eta erderazko hitza batera bizi daitezke sinonimo moduan, batzuetan banaketa erregistro idiomatikoak emango du, bata hizkuntza jasoan erabiliko da eta bestea arruntagoan.

Herri batzuetan horrela egin da banaketa, adibidez, *ikuⁱⁿ* (bandera vasca) / *bandera* (beste edozein); *batzoki* hitza sortu zen "*casino o centro de reunión en general*" adierazteko eta herriak abertzale euskaldunen txokoa izendatzeko baino ez du erabiltzen.

V.- *Arazo linguistikoetan ez dute gustu pertsonalek agindu behar.*

Euskararen atzerakadari irtenbidea emateko garbitasuna behar dela eztabaidagarria izan daiteke, betiere neurri hori euskararen egoera hobetzeko eta hizkuntzalaritzaren printzipioen aurka joan gabe, irizpide objektiboak erabiliz, alegia, eta ez gustu pertsonalak bultzatuta egiten bada ongi etorri neurri hori eta onuragarri diren beste guztiak.

VI.- *Ikastunek laster ikasten dituzte neologismoak baina herri xeheak ez. Hiztegi "popularra", "literarioa" eta "zientifikoa" bereiztu behar dira.*

Esan daiteke herri xeheak beharizanen arabera jokatzen duela hitz bat ikasi behar duenean, hots, objektu bat izendatu beharrean aurkitzen denean neologismoa ikasteko interesa izango du, erderazkoa zein euskarazkoa izan. Herriak, beste modu batera esanda, hizkuntzaren alde pragmatikoari erreparatzen dio, herria ez da kontziente hitz egiten duenean, ez dio ardura nola esan, zer esan baino. Beraz, herriak eskuartean dituen bitarteko linguistikoak kentzen eta ordeztzen saiatzea alferreko lana suerta liteke gehienetan.

Badira, oso gutxi baina, euskara aztergai duten batzuk, neologismoak ikasteko izugarriko interesa dutenak eta horien zabalkundearen sinesten dutenak.

Jende arruntarentzat, hizkuntza tresna da eta ez da pentsamenduaren helburua. Hori oso argi izan behar du hizkuntza edonola eta edonoiz molda daitekeela pentsatzen duenak. Lehen esan dugunez hiztun arrunta ez da esaten duenaren konsziente, beraz, nola kontrolatuko du hitz egokiak erabiltzen dituen, egitura hau erderazkoa da, jadanik ez da aitak esan behar aiteak, baizik... Gainera hiztun arruntak komunikatu egin nahi du, "zer" da garrantzitsua, ez "nola".

Hiztegi ezberdina bereizi behar da:

a) Herri xehearen hiztegia: Jendeak herri-kulturari dagozkion hitzak (euskarazkoak eta erderazkoak) oso errotuta ditu; hitz hauen kontrako borroka herriak astiro-astiro belaunez belaun osatutako ondasunaren aurkako atentatua dela esan daiteke. Altubek gogor jardun du oraingoan *"El escritor que intenta sustituir las formas del lenguaje popular por otras artificiales, invade un terreno que le está vedado; no reconoce un derecho legítimo; no da al pueblo lo que es del pueblo"*.

b) Hiztegi literarioa: Idazleak lexikoaren aberastasuna lortu behar du, hiztegiaren zehaztasuna eta argitasunaren mesedetan lan egin behar du, baina horretarako herri-hiztegian errotutako hitzak errespetatu egin behar ditu. Literaturaren helburua, nolana ere, herri-hiztegia gainditzea izango da baina garbitasun antzurik gabe, herriak adierazi ezin dituen adierazpenen sortzailea izan behar du idazleak.

c) Hiztegi teknikoa: Hitz tekniko asko eta asko daude jende arruntak ezagutu beharrik ez dituenak, adituen erabilerarako praktikoak baino ez direnak. Hitz batzuk zientzia gizon batzuen burmuinean baino ez daude, terminologia unibertuala izan beharko luke herri ezberdinetako arlo espezializatuetako adituen arteko komunikazioa errazteko. Gainera, *Adolphe Noreen* iraskasle suediarrek dioten moduan *"Los hombres no pertenecen solamente a un grupo étnico o nacional: forman parte igualmente, según sus estudios, su profesión, su género de vida y su grado de cultura, de comunidades ideales que son a la vez más generales y limitadas. El matemático vive en cambio de ideas con los matemáticos de otros países. El geólogo francés tiene necesidad de comunicarse con sus colegas de América y Australia. El negociante quiere saber lo que ocurre en el mercado del mundo entero. No sería razonable que, en nombre de una idea de pureza, se pusieran obstáculos al empleo de términos que son la propiedad común de los hombres consagrados a los mismos intereses y a las mismas investigaciones"*.

J. Vendryes-ek dio arlo zientifikoan hitz berriak onartzean ez dela mailegua hartzeko erreparorik izan behar, batez ere mailegu horrek nazioarteko merkataritzan sartzeko eta beraz, Europako hizkuntza nagusien mailan jartzeko balio duenean.

Euskal jende arruntak behar izan dituenen, beste hizkuntza batzuetatik hartu ditu hitz teknikoak eta hori poztekoa da, horrek gure herriaren aurrerakuntza kulturala adierazten baitu.

VII.- *"Errotutako" lexikoa eta "ez errotutako" aren arteko aldea. Herriak, normalean, zuzen hitz egiten du.*

"...el pueblo es el mejor corruptor de los idiomas" Garairen esaldi honi hain estimatua duen Sabino Aranak emango lioke erantzuna: "El vulgo, irreflexivo e ignorante, es el sabio autor de nuestro euskera, el único académico infalible del lenguaje: porque el instinto, por su misma dependencia esencial, es, en sí mismo, infalible, mientras que la razón, por su misma independencia, es en extremo falible".

Ukaezina da herriak beti ez duela erabiltzen hizkuntza behar bezain zuzen edo egoki, hala sortu dira Garaik herriaren hizkuntza usteltze horren adibide jartzen dituen: *trigua, maduratu*, ... Arrazoi du Garaik honelako hitzetan herri zehatz batzuek hizkuntza itsusitu egiten dutela. Ez dira, ordea, herri-hiztegian errespetatu beharreko adibide egokiak, adibide egokiak dira euskara ondoen hitz egiten den tokietako hitzak. Halako astakeriak ekiditeko lan premiazkoa da toki horietako hitzak jasotzea eta zabaltzea.

Garaik "musikia, santua, infernua..." lehen aipatutako hitz multzoan sartu ditu baina hitz hauek aspaldi hartutako hitzak ditu euskarak eta oso zabalduak daude Euskal Herri osoan. Honelako berbak, zabalduak eta aspaldikoak dira literaturan errespetatu behar direnak.

Hizkuntza guztietan hitz bat onartu ala baztertu behar denean akademiko edo adituek kontuan hartzen duten lehenengo gauza da herriak erabiltzen dituen eta zenbat zabaldua dauden. Hori da gure herrian egin beharko litzatekeena: ondoen hitz egiten den tokietako aspalditik erabiltzen diren hitzen hiztegia jaso eta herrian zabaldu.

VIII.- *Klasiko espainolen eta latindarren neologismoa.*

Neologismoen erabilera arrazoitzeko Garaik gaztelaniaren historian autore ezberdinen adibideak jarri dizkigu, Fray Luis de Leon, Fray Luis de Granada... baita Horacio, Virgilio eta Ciceronen lanak ere. Idazle horiek neologismoak ez zituzten erabili herriak erabiltzen dituen berbak ordeztzeko, literaturaren bidez herri hizkera aberasteko eta gainditzeko baizik.

IX.- *Hizkuntzalariak eta hizkuntzaren forma arraroak.*

Hizkuntza aztergai dutenek, bai gramatikoak bai hizkuntzalariak forma arraroen bila ibiltzen dira. Ezberdintasun bat dago, ordea, batzuen eta besteen helburuetan: hizkuntzalaria forma arraro horien azterketa hutsean geratzen den

bitartean, gramatikoak forma arraro horiei artifizialki bizia eman nahi die eta bizirik dauden hitzengatik ordeztu nahi dituzte.

ZORTZIGARREN ATALA: "Abertzaletasuna" eta "euskararen garbitasuna".

I.- "Abertzaletasuna"-k garbizaletasunaren gehiegikeriak ebitatzea aholkatzen du.

Abertzaletasunak, dudarik gabe, euskalzaletasuna piztu du eta ukaezina da gure hizkuntzaren salbazioan oso garrantzitsua dela; izan ere abertzaletasunak lortu du euskaldunengan euskararen konzientzia, euskara dakitenek lantzea eta ez dakitenek ikastea.

Hizkuntzaren garbitasuna aberria askatzearekin nahasten da, ordea. Beste modu batera esanda, hizkuntza, ohiturak, kultura inposatu nahi dizkioten bi naziok inguratuta bizi den Euzkadi salbatzeko hizkuntza bera isolatu egin behar da, bereizi, hori da euskara eta aberriaren salbazioa.

Hizkuntza erderatik isolatzeko, bereizi egin behar, zenbat eta besteetatik gehiago bereiztu, orduan eta libreagoa izango delako ustea dute euskalzaleek. Horretarako, hizkuntzatik erderazko hitz guztiak baztertu egin behar dira, hizkuntza garbitu egin behar da hizkuntza berezia izan dadin.

Hasteko, euskara berez da berezia, hizkuntzen berezitasuna ez baitago hiztegian, gramatikan, egituretan, deklinabidean, fonetikan...baino. Ingelesak hitz erromaniko pilobat erabiltzen duela eta, ulergarria egiten zaio espainolari? Inondik inora ere ez. Erderazko "musica", ingelesek "music" ahoskatzen dute, guk "musikea, musikia, musikie..." gure hizkuntzaren elementu gramatikal propioetara moldatu dugu eta horregatik berezia izaten jarraituko du hizkuntzak, zer esanik ez, deklinatzen badugu: "musikarekin, musikagatik, ..." Hizkuntza berezia egiteko, isolatzeko hiztegia garbitu beharra zalantzan jartzekoa da, beraz.

Bestalde, isolatze hori, hain ezberdina izate horrek zaildu egiten du beste hizkuntzekiko borroka. Begira, bestela, katalanaren kasua, gaztelaniarekin duen antzak ez dio mesede baino egin.

Abertzaletasuna erabili behar da jendeak euskara maite, ikasi eta erabil dezan, euskaltasunaren konzientzia pizteko baina abertzaletasunaren izenean ez litzateke kanpaina garbitzaile kaltegarririk egin beharko. *"El patriotismo no nos exige poner en peligro de perder lo bueno posible (el euskara rico y racionalmente popular) por lo mejor imposible (el euskera absolutamente puro)*

II.- Euskaldun berriak eta euskal berrikuntzak.

Altubek hizkuntzaren berritzaile gehienak euskaldun berriak direla esan zuen. L. de Garaik zuzenketa bat egin dio Altuberi esanez euskaldun zahar asko ere berrikuntza horietan dihardutela. Altubek ñabardura bat egin du esanez aldeak daudela berritzaile batzuetatik besteetara eta berak adierazi nahi izan zuen berrikuntza orokorra zela, lexikala, morfologikoa, prosodikoa... Hots, Altubereren helburua da euskaldun berriei ohartaraztea egiten dituzten edo egin ditzaketen erakuntza gramatikalez, euskaldun zaharrek egingo ez lituzketenez.

III.- "Renacimiento euskérico" k (euskal berpizkundeak) bi arlo ezberdin landu behar ditu: tutoretza "tutelar" izenekoa eta zientifikoa.

Nahaste izugarria dago abertzale, garbizale kontzeptuon artean eta horien arteko bereizketa egin beharra dago. Garaik aditzera ematen du abertzale eta garbizale sinonimoak direla baina abertzale izateak ez du esan nahi garbizale izan behar denik.

Euskaltzaindin kide izan zen L. de Eleizalde proposatuta arlo bi bereizten dira: tutoretza izenekoa, euskara gorde eta zabaltzeaz arduratzen den taldea, eta zientifikoa, hizkuntzaren azterketa egin eta araudia ezartzen duena.

Arana Goirik ere argi zuen berak sortutako alderdikideak euskararen alde lan egitera behartuta zeudela (acción tutelar obligatoria), eta horrez gain beste arlo bat zegoela, zientifikoa:

1) *"La acción tutelar es obra afectiva; está impulsada por el amor y cuadra perfectamente a los hombres agrupados en partidos políticos esencialmente sentimentales como el Nacionalista".*

2) *"La acción científica en cambio (osea, los estudios sobre euskeralogía), debe ser dirigida exclusivamente por la luz de la razón, evitando cuidadosamente sea empañada ésta por motivo alguno de carácter afectivo o sentimental".*

Arana Goirik argi zuen arlo zientifikoak guztiz objektiboa izan behar zuela *"debe procurarse por todos los medios alejar todo lo que suponga afecto o desafecto personal o partidista".*

Laburbiltzeko, hasieran aipatu dugun nahastea argitze aldera, esan behar da bereizketa bat egin behar dela burua eta bihotzaren artean, arrazonamendua eta sentimenduaren artean, arazo zientifiko eta politikoen artean, hau da, euskeralogia eta abertzaletasunaren artean.

IV.- Arana-Goiriren irakaspén euskeralogikoak eta horien jarraitzaileak.

L. de Garaik uste du, antza denez, euskaralogian egin beharreko lana Maisuaren irakaspenei hertsiki lotua izan behar duela; Maisuaren jarraitzaile fidela izan behar dela, alegia.

Sabino Arana-Goiri jarraitzeko bi modu daude: bata, Sabino Aranaren teoriaren jarraitzaile fidela izanik; bestea, Sabinoren irakaspenak oinarritzat hartuz eta ez, hitzez hitz jarraituz.

Ikusi dugu lehen Sabinok argi zuela euskaralogiaren bi arlo ezberdinak: "tutoretza" arloa, sentimentuek gidatzen dutena eta arlo zientifikoa. Badirudi Garaik, lehenengo arloa baino ez duela aintzat hartzen. Sabinok, bestalde, arlo zientifikoari ere garrantzi handia eman zion eta euskararen "tutoretza" horretatik bereiztuz, arlo zientifikoan arrazoiak agindu behar zuela adierazi zuen "*no hay más autoridad que la razón*".

Hitz horietatik ondoriozta daiteke, euskaralogian Sabinok zientziaren, hizkuntzalaritzaren printzipioei ez liekela muzin egingo, Sabinok euskararen onura besterik ez baitzuen nahi. Beraz, Garairenak bezalako jarrera estuak gutxi lagun diezaioke, Aranak nahi zuen moduan, euskararen azterketa objektibo eta zientifikoari.

BEDERATZIGARREN ATALA: "Euskera-zaà" eta "Euskera-beà"-
Zentzuzko garbizaletasuna - Abertzaletasuna- Gure erdal idaztiak - Antzinako eta oraingo euskal-idazleak.

I.- *Hitz "arkaikoak" eta "neologikoak", erdarazko "popularrak" eta "ez popularrak".*

Garai kezu da euskaldun zaharrek eta horien artean, Altubek (akademiko batek) erabiltzen dituzten erdarazko hitzak "binagre, platera..." ordeztuko hitz zaharrak "ozpin, azpil" proposatzen dituztenean euskara berritzaletat dituztela eta erdarazko hitzak euskara zahartzat.

Altubek hitzen sailkapen bat egiten du:

- a) Arkaikoak (txiro, matrazu...)
- b) Neologikoak (zenbakizti, ikuàin...). Neologikoen kasuan, Garaik dio sustrai zaharretatik sortutakoak direnez, ez direla euskara berrikoak. Orduan euskarari ez da euskal neologismorik izango, denak izango dira hitz zaharrak.
- c) Erdarazko hitz errotuak (eleiza, plater...)
- d) Erdarazko moderno errotuak??? (aidoplanoa, radioa...)

Platera / azpil, lehenengoa da gehien erabiltzen dena, bigarrena euskal hitza izan arren gutxiago edo ia ez da erabiltzen. Zer egin daiteke honelakoetan? Ez dago dudarik saiatu egin behar dela euskal hitza berreskuratzen, baina erdarazkoa baztertu gabe. Azken finean, erabileran herriak agintzen du eta ezin da herriaren kontra joan.

II.- *"Zentzuzko" eta "muturreko" garbizaletasuna.*

Garaik azken muturrera darama Altubek egiten duen herri-hiztegiaren defentsa, "Kafe-kon-letxe preparau enseguida"... eta horrelako adibide exajeratuak Altube onartzeko prest egongo balitz bezala.

Altuberen ustez, mailegu hitzak onartzeko hiru bide daude:

- 1) Erderazko hitzak inolako mugarik gabe onartzea.
- 2) Erderazko hitz guztiak baztertzea. Muturreko garbizaletasuna.
- 3) Euskaraz ondoen egiten dituen tokietako hitz arruntak onartzea.

Altubek hirugarren bidea dela zentzuzkoa dio behin eta berriro, beraz, Garairen salaketa hori bere muturreko garbizaletasuna defendatzeko argudioa izan dela pentsatu behar da.

III.- Gure euskal eta erdal idazkiak.

Garaik dio "*Los lingüistas critican a los escritores, pero ellos no escriben en euzkera para contrarrestar esa influencia fatal de los puristas*".

Altubek aurrekoari erantzunez dio berak aurretik gai honetaz euskaraz idatzi zuela eta erderazkoa idatzi eta gero, nola nahastu dituen bazterrak ikusita, pentsatzekoa dela euskarazko artikulua inork gutxik edo inork ez zituela irakurri.

Ez da erraza, dena den, euskaraz idaztea; ez da erraza asmatzea: "euskara garbia" ala "euskara motrolloa". Euskara garbia ez du herriak ulertzen, eta herriak uler dezakeena "euskara motrollo"tzat jotzen da.

IV.- "Abertzaletasuna" eta "Aberriaren askatasuna" euskara salbatzeko.

Inolako zalantzarik gabe, abertzaletasuna beharrezkoa da euskara bultzatzeko eta Euskal Herria berreuskalduntzeko baina abertzaletasuna ez da nahikoa euskara berreskuratzeko. "*No hay que confundir necesario y suficiente*" - dio Altubek.

Abertzale asko dira euskara maitatu arren, eguneroko bizitzan erderara jotzen dutenak. Zerbait gehiago behar da, beraz. Hizkuntzalaritzak, hizkuntzen lege biologikoen zientziak eskaintzen dizkigun irakaspenetan oinarrituta euskararen zentzuzko lanketa (cultivo racional) egin behar dugu. Ez da bakarrik sentimentu kontua, euskaraz hitz egiteko ahalegina egin behar da, borondatea jarri behar da. Izan ere, hizkuntza bat berreskuratzeko bi baldintza behar dira: hizkuntza zaindu eta gordetzea eta hiztun ugari izatea.

V.-Antzinako euskal-idazleak eta idazle modernoak.

Altubek kexak jaso ditu euskal idazleei (Uàunzuno eta Kirikiño kenduta) ematen dien meritu ezagatik. Altubek onartzen du gogor samar aritu zela hau

adierazi zuenean *"En medio de tantas publicaciones euskéricas carentes de sabia popular y, por consiguiente, de belleza artística en el lenguaje, surgió el año de 1930 un libro titulado UÀUNZUNO TAR IPUIAK, una obra de las muy pocas originales que, entre las publicadas en estos tiempos, merece verdararamente el título de literaria"*.

Altuberen helburua zen idazleak ohartaraztea muturreko garbizaletasunak euskarari zekarkion kalteez . Agian hitz gogorrak erabili zituen baina beharrezkoak idazleengandik behar bezalako atentzioa erakartzeko.

7.- FISHMANen *Reversing Language Shift* edo HINBE (Hizkuntza INdarberritzea)

“*Reversing Language Shift*”-ek edo HINBEk (*Hizkuntza INdarberritzea*), hizkuntza ahulari, gure kasuan, euskarari hitzun gehiago izan ditzan eta hitzun horiek gero eta harreman-sare gehiago eta egoera ugariagoetan euskaraz jardutea lortzea du helburu.

Euskarak erabileran atzera egin duela, ikusi dugunez, aspaldiko arazoa da eta aspaldikoa baita gaitz honi erremedioa jartzeko ahalegina ere, batzuetan ahalegin horretan bete-betean asmatu ez bada ere.

Badakigu zein den gaitza. Nola sendatu, ordea, gaitz hori? Ikusi egin beharko zerk eragiten duen gaitza, zein den bakterioa, haren kontra jarduteko.

Oso zaila da esatea zein den euskararen atzerakadaren erruduna, askotan euskaldunok, sentimentuek itsututa, erruduna erraz aurkitu dugu: Foruak galtzearen ondorioa, Frankismoa... Ez da hain sinplea, jakina aldagai politikoek izugarritzko eragin izan dezaketela, hizkuntzak, debekatua baldin badago, eta garai bateko euskaldunek hori jasan behar izan zuten, nekez egin dezakeela aurrera horrelako baldintzetan. Baina ez da arrazoi nahikoa. Beste batzuetan, bi hitzetan laburbiltzen dugu arazoa: erderaren eraso. Egia da eraso egon dagoela, frantsesaren edo gaztelaniaren indar kulturalari, politikoari eta sozialari aurre egitea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Garaik, ordea, kezkatu beharko gintuzkeena ez dela erderaren erasoak zioen, euskaldunen euskaraz hitz egiteko borondate ezak baino. Ildo beretik jotzen du Fishmanek behin eta berriro aholkatzen digunean euskaldunok euskaldunekin euskaraz hitz egin behar dugula esaten duenean. Harira etorri, zein den bakterioa? Esan daiteke arrazoi ezberdinak daudela, arrazoi politiko, sozial eta kulturalak eragiten dutela euskararen atzerakada.

Euskararen ahulezia, aipatu dugun moduan, era askotakoa da: soziala, demografikoa eta kulturala. Fishmanek honi dislokazioa esaten dio. Euskaldunak “*socially disadvantaged*” dira, eskola gutxiago jasoak eta pobreagoak, ahulagoak, azken finean. Ahulagoak dira botere ekonomiko, politiko eta kultural aldetik eta horrek ondorio garbia dakar: euskaraz jakiteak ez dio euskaldunari askotan ezertan laguntzen, ez du ordainsaririk jasotzen, erderaz jaso lezakeen moduan; alderantziz, erdaraz aritu beharreko kargu eta lanpostuek ordainsari hobeak izaten dituzte. Zenbat telebista-aurkezlek, idazlek egin diote muzin, nahiz eta euskaldunak izan eta hala sentitu, erderaz lan egiteari eta horren truke soldata hobe kobratzeari?

Aurreko guztiak dakarren desprestigio sozialak ez dio, ez, euskarari mesederik egin. Euskaraz egin eta “boronotzat” hartzea ez da inoren gustukoa.

Euskararen atzerakadaren beste arrazoi bat dislokazio demografikoa izan da. Euskalduna ez da isolatua bizi, beste kultura batekin topo egin behar izan du, kanpotik jende asko etorri baitzen Euskal Herrira lanera. Bestalde,

euskaldunak ere baserria utzi eta hirira joan behar izan du lanera eta han erdera ikasi behar izan du, jakina. Demografian beste elementu inportantea zenbakiak dira, oso sinplea da kontua: zenbat gara euskaldunak? Ezkontza mistoak egon direla, ume gutxiago jaiotzen dela kontuan izanda, gero eta gutxiago. Gogoratu Altubek hizkuntza bat gordetzeko aipatzen zituen baldintzak: hiztun ugari izatea eta isolatuta bizitzea. Gaur egun, fisikoki isolatuta bizitzea ezinezkoa da, eta gainera herri kultua, modernoa eta zibilizatua izan nahi dugu. Fishmanek, ordea, nolabaiteko isolamendua beharrezkoa dela esaten digu, euskal arnasmuneak sortu edo mantendu behar direla, berriro ere euskaldunek euskaldunekin euskaraz aritu beharra azpimarratuz.

Dislokazio kulturala ere izugarria da, hizkuntzari lotua doan euskal kultura irensten doa erdal kultura. *Operación Triunfo erdal saioak*, adibidez, erdarazko produktu horrek, gure artean izan duen arrakastak euskaraz eginiko saioetan ere izan duen eragina horren frogarria da. ETB sasoi batean, erdal telebistak jende ospetsuaren bizitza aireatzea helburu duten saioen arrakasta ikusita, euskaraz ere ematen ziguten horrelako saio bat, baina harritzekoa dena da ez zela euskaldun ospetsu bat ere ateratzen. Nork ez du ezagutzen Jesulin, Bisbal, Bustamante...eta abar Aizpea Goenaga aktorea, Arantza Urretabizkaia idazlea edo Maixa abeslaria baino hobeto?

Euskararen egoera ikusita, zein da Fishmanek ematen digun erremedioa? Lehenengo eta behin argi izan behar dugu euskarak egoera zeharo ezberdinak bizi dituela, ez dela berdin Gernikako euskararen egoera eta Barakaldokoa, beraz, ezin diezaioketula botika bera eman batean eta bestean.

Fishmanek, oso gordina bada ere, hala izaten da errealitatea, egia galanta aitortzen digu, euskaldunon sentimentuak mintzen dituen egia: ahaztu Euskal Herri euskaldun elebakarra! Izan ere, egungo mundu modernoan elebakartasunak ez du zentzurik. Erderarekin bizi beharko dugu, nahitaez. Gakoa dago, beraz, elkarbizitza hori eramateko moduan. Fishmanek diglosiazko elebitasun egonkorra lortu behar dela dio, hots, euskaldunok euskaldunekin euskaraz jardutea funtzio jakinetan (ahalik eta gehienetan), nahiz eta erdaldunekin oro har erdaraz jardun.

Asko hitz egiten da euskararen normalizazioaz eta askok euskararen normalizazioa euskararen presentzia hutsarekin nahasten dute, batzuek nahikoa dute ospitale, ikastetxe, banku, denda eta abarretara joan eta errotuluak euskaraz ikustearekin. Leku hauek euskararen normalizazioa islatzen dute. Beste askok exijitu egingo dute –eskubide osoz gainera- infomazioa euskaraz eman diezaioten han eta hemen, gero etxera joan eta ezkontideari – euskalduna izan arren- erdera hutsean azaltzeko. Baina hori bai euren eskubidea erabili egin dute eta besteen “normalizazioa” exijitu dute. Norbaitek esan dezake exajerazioa dela baina euskaldunon askoren jokabidea da, zoritxarrez: euskararen normalizazioa bai, baina besteen pentsutan, norberak ezer gutxi eginez.

Ez dela nahikoa, alegia, *Ibilaldira* joatea, *Kontseiluaren* bazkide izatea, *Euskarari bai* pegatina autoan erantsita eramatea, umeak ikastolara eramatea edo D ereduan matrikulatzea. Normalizazioa norberaren mingainetik hasten da,

ez dugu besteek zer egiten duten begira egon behar, ez gobernuak, ez enpresako gerenteak, ez dendariak...

Begira diezaiegun oraindik euskara bizirik diaruen tokiei, zer ezaugarri dituzten, zergatik eutsi dioten hizkuntzari... Ez da izango, noski, beste herri batzuetakoak baino abertzaleagoak direlako (gogoratu Garaik abertzaletasunean ikusten zuela euskararen salbazioa), ez da izango herri horietan euskara garbiagoa egiten delako (aurreko idazleek uste zuten moduan: Mlbisus, Nabariztara, Garai). Agian Fishmani erreparatuz herri horien ezaugarriez jabetuko gara.

Hizkuntza batek bizirauteko bi gauza behar ditu: hiztun kopurua eta hiztun horiek elkarrengandik hurbil bizi izatea. Baldintza horiek egiten dute hizkuntzaren transmisioa naturala izan dadin eta inolako hizkuntza plangintzarik behar ez izatea.

Fishmanen ustez, euskarak bizirauteko ezinbestekoa du ahozko euskara (garbiagoa edo zikinagoa) biziari eustea; garrantzi handiago ematen dio ahozkoari aurten Durangoko Azokarako argitaratuko diren ez dakit zenbat elaberri, joku, CD eta abarrei baino. Horrek ez du esan nahi euskal kulturaren produkzioak gora egiteak ez gaituela poztu behar, hizkuntzak beharrezko baitu aurrera egiteko, erabilerak duela lehentasuna baizik. Ez ahaztu gure euskararen transmisoreak barrez lehertzen zirela Paco Martinez Sorriaren filmak ikusita edo Espainiak gola sartu eta pozten zirela! Ez da nahikoa, XX. mendearen hasieran euskalzaleek uste zuten abertzaletasuna edo literatura garbia, horiek gabe ere aurrera egin du eta euskarak. Beste zerbait behar da orduan, horrezaz gainera.

Fishmanek du giltza. Euskarak erderarekin bizi beharko du gerora ere, gakoa dago elkarbizitza hori eramateko moduan. Fishmanek euskaldunak euskaldunekin euskaraz hitz egiteko aholkatzen digu, ahalik eta egoera gehienetan, eta erdaldunekin, euren hizkuntza errespetatuz, erderaz hitz egiteko.

Argi dago bi kultura, bi hizkuntzen arteko elkarbizitza horretan batzuen eta besteen ahalegina ezinbestekoa dela, hots, ez dela nahikoa euskaldunak erderaz hitz egiteko ahalegina, lortu behar da erdaldunak ere gure euskal gorpilera ekartzea. Fishmanek diglosiazko elebitasun egonkorra aipatzen du. Azken finean lortu behar duguna da euskara funtzio batzuetan baino ez bada ere bizitzea eta ez proiektu handi-mandietan amets egin, euskara edozein esparrutan egun batetik bestera erabiltzea.

Lehen esan dugu oso garrantzitsua dela euskaldunak elkarrengandik hurbil bizi izatea. Zer esan nahi du horrek, orain etxebizitzaz eta herriz aldatu behar dugula? Ez, ez da hori kontua, baina bai elkartzea: txango euskaldunak antolatzea, euskarazko guraso-elkarteak sortzea, mendi-ibilaldiak,... Helburua etxetik hasi eta hurbileko, auzoko esparruko harreman-sare euskalduna eratzea da.

